

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

Legezko Gordailua / Depósito Legal BI-1958-1 - ISSN. 1134-8720

BAO. 124. zk. 2007, ekainak 25. Astelehena

— 18001 —

BOB núm. 124. Lunes, 25 de junio de 2007

Lehenengo zatia / Primera parte

Laburpena / Sumario

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa / Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Kultura Saila

Golfeko, Hockeyko, Arku-Tiroko, Txirrindularitzako eta Herri Kiroletako Bizkaiko Lurraldeko Federazioen Estatutuak argitaratzen diren iragarkia.

18003

Departamento de Cultura

Anuncio por el que se procede a la publicación de los Estatutos de las Federaciones Territoriales de Bizkaia de Golf, Hockey, Tiro con Arco, Ciclismo y Juegos y Deportes Vascos.

18003

Hirigintza eta Udal Harremanen Saila

Ekainaren 15eko 836/2007 FORU AGINDUA, Hirigintza eta Udal Harremanen foru diputatuarena, Busturiko Udalari, Sukarrieta eta Busturia arteko muga-lerroko 12 eta 13. zedarrien mugaketa-espedientearen tramitazioa egiteko baimena ukatzen diona.

18099

Departamento de Relaciones Municipales y Urbanismo

ORDEN FORAL 836/2007, de 15 de junio, del diputado foral de Relaciones Municipales y Urbanismo, por la que se deniega al Ayuntamiento de Busturia la tramitación del expediente de deslinde de los mojones números 12 y 13 en la línea de término entre Sukarrieta y Busturia.

18099

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa / Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

Bilboko Udala

18103

Ayuntamiento de Bilbao

Barakaldoko Udala

18119

Ayuntamiento de Barakaldo

Basauriko Udala

18121

Ayuntamiento de Basauri

Zierbenako Udala

18122

Ayuntamiento de Zierbena

Mungiako Udala

18122

Ayuntamiento de Mungia

Astiunerako Udal Erakundea Autonomiaduna (Mungia)

18124

Organismo Autónomo Astiunerako Udal Erakundea (Mungia)

Arteako Udala

18136

Ayuntamiento de Artea

Urduñako Udala

18143

Ayuntamiento de Orduña

Orozkoko Udala

18148

Ayuntamiento de Orozko

Sopelanako Udala

18176

Ayuntamiento de Sopelana

Bediako Udala

18177

Ayuntamiento de Bedia

Bermeoko Udala

18183

Ayuntamiento de Bermeo

Ondarroako Udala

18185

Ayuntamiento de Ondarroa

Durangoko Udala

18191

Ayuntamiento de Durango

Bilbao-Bizkaia Ur-Partzuergoa

18191

Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia



III. Atala / Sección III

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración Autonómica del País Vasco

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu
Saila

18194 Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social
18217 Departamento de Medio Ambiente y Ordenación
del Territorio

IV. Atala / Sección IV

Estatuko Administrazio Orokorra / Administración General del Estado

18221 Ministerio de Administraciones Públicas
18221 Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales

V. Atala / Sección V

Justizi Administrazioa / Administración de Justicia

18223 Juzgado de Primera Instancia e Instrucción número 4
de Durango (Bizkaia)

VII. Atala / Sección VII

Beste zenbaitk / Varios

18224 Colegio Oficial de Agentes Comerciales de Bizkaia
18224 Junta de Concertación de la Unidad de Ejecución
U.E 6.3.1.a, de Suelo Urbano Industrial (Elorrio)

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia**Foru Aldundia / Diputación Foral****Kultura Saila**

Golfeko, Hockeyko, Arku-Tiroko, Txirrindularitzako eta Herri Kiroletako Bizkaiko Lurraldeko Federazioen Estatutuak argitaratzen diren iragarkia.

Kulturako Foru Sailaren otsailaren 9ko 752/2007 Foru Aginduaren bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 34. zk, 2007ko urtarrilaren 16a), Bizkaiko lurraldeko kirol federazioen estatutuen eta araudien administrazio-onarpenerako eskumena Kulturako Foru Sailako Kirolen zuzendari nagusiari eskuordetu zitzaion.

Euskadiko Kirol Federazioen urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 65. artikulua ezarritakoa betetzeko, honako Bizkaiko lurraldeko kirol federazioen Estatutuak argitaratzen dira:

- Bizkaiko Golf Federazioaren Estatutuak (Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen zuzendari nagusiaren maiatzaren 10eko 77/2007 Ebazpenaren bidez onetsiak).
- Bizkaiko Hockey Federazioaren Estatutuak (Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen zuzendari nagusiaren maiatzaren 14ko 79/2007 Ebazpenaren bidez onetsiak).
- Bizkaiko Arku-Tiroaren Federazioaren Estatutuak (Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen zuzendari nagusiaren maiatzaren 18ko 83/2007 Ebazpenaren bidez onetsiak).
- Bizkaiko Txirrindularitza Federazioaren Estatutuak (Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen zuzendari nagusiaren ekainaren 1eko 89/2007 Ebazpenaren bidez onetsiak).
- Bizkaiko Herri Kirol Federakundearen Estatutuak (Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen zuzendari nagusiaren ekainaren 8ko 92/2007 Ebazpenaren bidez onetsiak).

Bilbon, 2007ko ekainaren 13an.—Kulturako foru diputatua, Belen Greaves Badillo

BIZKAIKO GOLF FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK**1. artikulua**

Bizkaiko Golf Federazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Erakunde horrek nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna du, eta kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak, kirol-taldeak eta bestelako erakundeak Bizkaiko Lurraldean biltzen ditu, Golfa egin, sustatu eta antolatzeko xedearekin.

2. artikulua

Bizkaiko Golf Federazioa Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen bidez arautzen da, bai eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren, Legea garatzen duten gainerako xedapenen, estatutu honen nahiz araudi zehatzen eta organoek hartutako akordio baliozkoen bidez ere.

Departamento de Cultura

Anuncio por el que se procede a la publicación de los Estatutos de las Federaciones Territoriales de Bizkaia de Golf, Hockey, Tiro con Arco, Ciclismo y Juegos y Deportes Vascos.

Mediante la Orden Foral 752/2007, de 9 de febrero, del Departamento Foral de Cultura, («Boletín Oficial de Bizkaia» número 34, de 16 de febrero de 2007), se delega en el director general de Deportes del Departamento Foral de Cultura la competencia para la aprobación administrativa de los estatutos y reglamentos de las federaciones deportivas territoriales de Bizkaia.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 65 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, se procede a la publicación de los Estatutos de las siguientes federaciones deportivas territoriales de Bizkaia:

- Estatutos de la Federación Bizkaína de Golf (aprobados mediante Resolución 77/2007, de 10 de mayo, del director general de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia).
- Estatutos de la Federación Bizkaína de Hockey (aprobados mediante Resolución 79/2007, de 14 de mayo, del director general de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia).
- Estatutos de la Federación Bizkaína de Tiro con Arco (aprobados mediante Resolución 83/2007, de 18 de mayo, del director general de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia).
- Estatutos de la Federación Bizkaína de Ciclismo (aprobados mediante Resolución 89/2007, de 1 de junio, del director general de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia).
- Estatutos de la Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos (aprobados mediante Resolución 92/2007, de 8 de junio, del director general de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia).

En Bilbao, a 13 de junio de 2007.—La diputada foral de Cultura, Belen Greaves Badillo

ESTATUTOS DE LA FEDERACIÓN BIZKAINA DE GOLF

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES**Artículo 1**

La Federación Bizkaína de Golf es la entidad privada sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica y capacidad de obrar, que reúne a deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces, clubes, agrupaciones deportivas y otras entidades para la práctica, promoción y organización de la modalidad de Golf en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Artículo 2

La Federación Bizkaína de Golf se rige por la Ley 14/1998 de 11 de junio, del Deporte del País Vasco; así como por el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, y demás disposiciones de desarrollo de la Ley; por los presentes Estatutos y reglamentos específicos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos propios.

3. artikulua

Bizkaiko Golf Federazioaren egoitza Bilboko (PK 48013, Bizkaia) José María Escuza kalearen 16. zenbakiko bigarren solairuan kokatzen da.

4. artikulua

Bizkaiko Golf Federazioak jarduera eta txapelketa ofizial guztiak, eta, hala denean, Bizkaiko lurraldean konfiguratu edo definitutako modalitate horren diziplinak bultzatu, kalifikatu, baimendu, ordenatu eta antolatzen ditu, Euskadiko Golf Federazioaren txapelketei eta Bizkaitik kanpo egiten diren jardueri kalterik egin gabe.

5. artikulua

Bizkaiko Golf Federazioa Euskadiko Golf Federazioaren barruan kokatzen da.

Bizkaiko Golf Federazioak autonomia erkidegoko modalitate horren Bizkaiko kirol federatua ordezkatzeko du, eta estatu nahiz nazioarteko ordezkaritza Euskadiko Golf Federazioari dagokio.

6. artikulua

Helburuak bete ahal izateko, Federazioak hurrengo eginkizunak beteko ditu:

- a) Kirol federatuaren jarduera Bizkaiko lurraldean antolatzea.
- b) Golfeko txapelketa eta jarduera ofizialak Bizkaian antolatzea.
- c) Parte-hartzeari eta txapelketari buruzko arauak ezartzea, hala denean, goi mailako lurralde-eremuko federazioek emandako arauak kalterik egin gabe.
- d) Golfa autonomia mailan ordezkatzeko, eta eremu horretako nahiz estatu eta nazioarteko txapelketetan estamentu guztien parte-hartzea bultzatzea, betiere bere eskumeneko gaiak diren heinean.
- e) Golfeko Federazioaren lizentzien izapidetza egitea, Euskadiko Golf Federazioak hori luzatu dezan horrek ezarri betekizunen eta prozeduren arabera.
- f) Jardueraren garapenean sortzen diren kirol-gatazkak ezagutu eta konpontzea, organo judizial eta arbitraje-organismoek duten eskumenari kalterik egin gabe.
- g) Arauen betepena zaintzea eta diziplina-ahala egikaritzea horiek kontuan izanda.
- h) Euskadiko Golf Federazioarekin lankidetzan jardutea kirolean debekatutako gai eta multzo farmakologikoak eta arauzkoak ez diren metodoen erabilera prebenitu, kontrolatu eta errepresiopean jartzeko, horretarako zehaztu arauketari helduta.
- i) Golfeko teknikarien eta epaileen prestakuntzan lankidetzan jardutea, horretarako zehaztu arauketari helduta.
- j) Baliabide ekonomiko propioen helburua eta atxikipena ezartzea, bestelako erakundeek jarduera garatzeko igorritako baliabideak kudeatzea eta baliabide guztien aplikazio egokia kontrolatzea.
- k) Federazio horri atxikita dauden klubek nahiz kirol-taldeek jaso ditzaketan diru-laguntzen aplikazioa eman eta kontrolatzea.
- l) Euskal Herriko administrazioekin lankidetzan jardutea kirol-sustapenaren helburuak betetzeko, bereziki, 14/1998 Legeak federazioei zuzenean emandako lankidetzako eta aholkularitza-eginkizunei dagokienez.
- m) Kirol-estatutuak eta -arauak eratzea.
- n) Bere lurraldean garatzen den kirol-modalitate horretan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzea, eta, ahal den neurrian, bermatzea.
- ñ) Oro har, kirol-modalitate hori sustatu eta hobetzeko kome-nigarria den guztia xedatzea.

Artículo 3

La Federación Bizkaína de Golf tiene su domicilio en José María Escuza, 16-2.º, de 48013-Bilbao (Bizkaia), en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Artículo 4

La Federación Bizkaína de Golf impulsa, califica, autoriza, ordena y organiza las actividades y competiciones oficiales de la modalidad deportiva de golf y en su caso, las disciplinas de dicha modalidad que se configuren o definan en el ámbito territorial de Bizkaia, sin perjuicio de las competencias que son propias de la Federación Vasca de Golf ni de las actividades que pueda realizar fuera de Bizkaia.

Artículo 5

La Federación Bizkaína de Golf está integrada en la Federación Vasca de Golf.

La Federación Bizkaína de Golf ostenta la representación del deporte federado bizkaíno correspondiente a su modalidad en el ámbito autonómico, correspondiendo la representación estatal e internacional a la Federación Vasca de Golf.

Artículo 6

Para el cumplimiento de sus fines la Federación ejercerá las siguientes funciones:

- a) Organizar la actividad deportiva federada en el ámbito territorial de Bizkaia.
- b) Organizar competiciones oficiales y actividades de la modalidad deportiva de Golf en el ámbito de Bizkaia.
- c) Establecer sus propias normas de participación y competición, sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.
- d) Ostentar la representación de la modalidad de Golf en el ámbito autonómico e instrumentar la participación de todos sus estamentos en competiciones de dicho ámbito, así como en competiciones estatales e internacionales, siempre dentro de su competencia.
- e) Tramitar las licencias federativas de Golf, para su expedición por la Federación Vasca de Golf conforme a los requisitos y procedimientos establecidos por ésta.
- f) Conocer y resolver los conflictos deportivos que se originen en el desarrollo de su actividad, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.
- g) Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.
- h) Colaborar con la Federación Vasca de Golf en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.
- i) Colaborar en la formación de las y los técnicos y jueces de la modalidad deportiva de Golf conforme a la normativa que al efecto se determine.
- j) Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos sus recursos.
- k) Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que pudiera conceder a los clubes y agrupaciones deportivas adscritas a ella.
- l) Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la Ley 14/1998 atribuye directamente a las federaciones.
- m) Elaborar sus estatutos y reglamentos deportivos.
- n) Promover y, en la medida de lo posible, garantizar la igualdad de mujeres y hombres en la práctica de su modalidad deportiva en su ámbito territorial.
- ñ) Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica de su modalidad deportiva.

7. artikulua

Bizkaiko Golf Federazioak bere eginkizunak Euskadiko Golf Federazioarekin eta, hala denean, Euskal Federazioaren barruan dauden bestelako lurralde-federazioekin koordinatuta garatuko ditu.

Bizkaiko Golf Federazioak Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan jardungo du eta honekin lankidetzatza-hitzarmenak sinatu ahal izango ditu helburuak, kirol-programak, aurrekontuak eta funtzio publikoekin zerikusia duten eskuordetutako gainerako alderdiak zehazteko. Hitzarmen horiek izaera juridiko-administratiboa izango dute.

Gisa berean, Bizkaiko Golf Federazioak Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera kontratu-programak sinatu ahal izango ditu. Hala, koetan, gutxienez ere, finantzaketa-aurreikuspenak, helburu zehatzak edo eskuratu beharreko helburu zenbatgarriak jasoko dira, baita aipatu helburuak ebaluatu eta auditatzeko mekanismoak ere.

8. artikulua

Bizkaiko Golf Federazioan debekatuta dago arraza, sexu, erlijio, iritzi edo sinismenen edota bestelako inguruabar pertsonalen nahiz gizarte-inguruabarren ondoriozko bazterkeria.

II. TITULUA

FEDERAZIOAREN INTEGRAZIOA. LIZENTZIAK

9. artikulua

1. Federazioaren lizentzia titularrari (pertsona fisikoa edo juridikoa) ematen zaion agiri pertsonal eta eskualdaezina da. Agiri horrek Bizkaiko Golf Federazioko kide izatea eta txapelketa ofizialetan parte hartzea ahalbidetzen du, betiere kasuan kasuko arauak kontuan izanda, baita goi mailako lurralde-eremuko txapelketa ofizialetan parte hartzea ere, indarreko arauketan ezarri kasuetan eta baldintzetan.

2. Federazioaren lizentzia bakarra izango da Euskal Herri osoan eta atxikipen bikoitza dakar, Bizkaiko Golf Federazioari eta Euskal Federazioari egindakoa, hain zuzen.

3. Bi federazioei egindako atxikipena kasuan kasuko lizentzia eskuratuta egiten da.

4. Bizkaiko Golf Federazioak, behin Euskal Federazioarekin ados jarrita, aisia-txartela edo zerbitzu-txartela sortu ahal izango du. Txartel horrek ez du izaera ofiziala eta izena borondatez eman ahal izango da, baina ez dakar txapelketa ofizialetan parte hartzeko eskubiderik, ezta Federazio honetan sartzeko eskubiderik ere. Hain zuzen ere, txartel horrekin kirol-jarduera ez-ofizialetan parte hartu edo zerbitzu jakin batzuk eskuratu ahal izango dira.

10. artikulua

1. Bizkaiko Golf Federazioa kirol horretako federazioaren lizentzien izapidetza egiteko erakunde eskudun bakarra da, eta lizentzia horiek Euskadiko Golf Federazioak luzatuko ditu.

2. Euskadiko Golf Federazioak lizentzien agiri-, kirol- eta ekonomia-araubidea, horien eskubideak eta betebeharrak, iraupena, indarraldiaren hasiera, kategoriak, kuotak, prozedura, formatua eta gainerako antzeko gaiak arauz ezarriko ditu. Horri kalterik egin gabe, bi federazioek euren eskumenak garatuko dituzte kasuan kasuko arautegien, eta, hala denean, koordinazio-akordio edo hitzarmenen bidez.

3. Bizkaiko Golf Federazioak federatuengandik borondatez kuota gehigarria jaso ahal izango dute zerbitzu eta jarduera zehatzak finantzatzeko.

4. Bizkaiko Golf Federazioak lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia likidatu ahal izango du Batzar Orokorrak onetsitako baldintzetan eta urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 24.5 artikuluan ezarritakoari helduta, eta ostean hori Euskal Federazioari emango zaio. Zenbateko garbi hori zenbateko gordinari goi mailako lurralde-eremuko txapelketetan parte hartzeagatik ordaindu beharreko aseguruak eta kuotak nahiz Euskal Federazioaren Batzar Orokorraren ariora Lurralde Federazioak ordaindu beharreko zenbatekoak kendu ostean lortzen da.

Artículo 7

La Federación Bizkaína de Golf desarrollará sus funciones en coordinación con la Federación Vasca de Golf y, en su caso, con las otras Federaciones territoriales integradas en la Federación Vasca.

La Federación Bizkaína de Golf colaborará con la Diputación Foral de Bizkaia y podrá suscribir con la misma convenios de colaboración al objeto de determinar los objetivos, programas deportivos, presupuestos y demás aspectos directamente relacionados con las funciones públicas delegadas. Tales convenios tendrán naturaleza jurídico-administrativa.

Igualmente la Federación Bizkaína de Golf, podrá suscribir con la Diputación Foral de Bizkaia contratos-programas en los que se incluirán, como mínimo, las previsiones de financiación de aquellas, los objetivos concretos o cuantificables a alcanzar así como los mecanismos para evaluación y auditoría de dichos objetivos.

Artículo 8

En el seno de la Federación Bizkaína de Golf no se permitirá discriminación alguna por razón de raza, sexo, religión, opiniones y creencias, o cualquier otra circunstancia personal o social.

TÍTULO II

INTEGRACIÓN FEDERATIVA. LICENCIAS

Artículo 9

1. La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a su titular, persona física o jurídica, la condición de miembro de la Federación Bizkaína de Golf y le habilita para participar en sus competiciones oficiales, siempre con arreglo a las reglas que en cada caso rijan las mismas, e incluso en aquellas competiciones oficiales de ámbito territorial superior en los casos y condiciones que establezca la normativa vigente.

2. La licencia federativa será única en todo el País Vasco y supondrá la doble adscripción de su titular a la Federación Bizkaína de Golf y a la Federación Vasca.

3. La integración simultánea en ambas federaciones se produce mediante la obtención de la correspondiente licencia.

4. La Federación Bizkaína de Golf podrá crear, de común acuerdo con la Federación Vasca, una tarjeta recreativa o de servicios, de carácter no oficial y de suscripción voluntaria, que no conllevará el derecho a participar en competición oficial alguna y que no supondrá la integración en esta Federación. Tal tarjeta sólo dará lugar a la participación en determinadas actividades deportivas no oficiales o a la obtención de determinados servicios.

Artículo 10

1. La Federación Bizkaína de Golf es la única entidad competente para tramitar las licencias federativas de su modalidad deportiva, licencias que serán emitidas por la Federación Vasca de Golf.

2. La Federación Vasca de Golf, establecerá reglamentariamente el régimen documental, deportivo y económico de las licencias, sus derechos y obligaciones, duración, comienzo de vigencia, categorías, cuotas, procedimiento, formato y demás cuestiones análogas. Sin perjuicio de ello, ambas Federaciones desarrollarán sus competencias a través de los Reglamentos correspondientes y, en su caso, acuerdos o convenios de coordinación.

3. La Federación Bizkaína de Golf podrá percibir de sus federados y federadas una cuota adicional de carácter voluntario para la financiación de determinados servicios y actividades.

4. La Federación Bizkaína de Golf liquidará, entregando a la Federación Vasca, el importe neto de cada licencia en los términos que apruebe la Asamblea General y de acuerdo con lo establecido en el artículo 24.5 del Decreto 16/2006, de 31 de enero. Dicho importe neto será el resultante de minorar al importe bruto los importes correspondientes a seguros y a las cuotas para participar, en su caso, en competiciones oficiales de ámbito territorial superior, así como la parte que según acuerdo de la Asamblea General de la Federación Vasca le corresponda a la propia Federación Territorial.

11. artikulua

1. Lizentzien formatua eta edukia Euskadiko Golf Federazioaren Batzar Orokorrak onetsiko ditu eta lizentzia horietan nahitaez Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

2. Bizkaiko Golf Federazioak interesdunei federazioen lizentzien betekizunei eta ondoreei buruzko informazioa emango die eta federazioan afiliatzeko beharrezkoak diren agiriak eta datuak jasoko ditu.

3. Lizentziak Euskadiko Golf Federazioak luzatuko ditu. Hain zuzen ere, lizentziok komunikazioaren teknologiak behar bezala aprobetxatzea ahalbidetzen duten baldintza teknikoak biltzen dituen euskarrian eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako zehaztapen teknikoaren arabera luzatuko dira.

4. Hona hemen lizentziaren agirian jasoko diren kontzeptuak:

- a) Nahitaezko aseguruaren kuota.
 - b) Euskadiko Golf Federazioari igorritako kuota.
 - c) Bizkaiko Golf Federazioari igorritako kuota.
 - d) Hala denean, goi mailako lurralde-eremukotxapelketa ofizialeko parte hartzeak kuota.
5. Lizentziaren agirian urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25.4 artikuluan ezarri edukiak jasoko dira.

12. artikulua

1. Lizentzien iraupena urtebetekoa izango da, egutegiko urtea oinarri izanda, salbu eta Euskadiko Golf Federazioak bestelako xedapena ezarri duenean.

2. Euskadiko Golf Federazioak Lizentzien Arautegian pertsona federatu batek izan ditzakeen lizentzien bateragarritasunaren kasuak, baldintzak eta ondoreak zehaztuko ditu.

III. TITULUA**GOBERNU-, ADMINISTRAZIO- ETA ORDEZKARITZA-ORGANOAK****13. artikulua**

Bizkaiko Golf Federazioan hurrengo gobernu, administrazio eta ordezkaritza-organoak egongo dira:

- a) Batzar Orokorra bezala izendatutako gobernu-organoa.
- b) Kide anitzeko Administrazio-organoa. Horri Zuzendaritza Batzordea deritza.
- c) Ordezkaritza-organoa. Horren titularra Federazioko presidentea izango da.

I. KAPITULUA**BATZAR OROKORRA****14. artikulua**

Batzar Orokorra federazioko gobernu-organorik garrantzitsuenak da, eta, gutxienez ere, hurrengo eginkizunak beteko ditu:

- a) Presidentea aukeratzea.
- b) Federazioko kontuak eta aurrekontuak onestea.
- c) Estatutuak eta horien aldaketak onestea.
- d) Zentsura-mozioa onestea.
- e) Txapelketa ofizialen egutegia onestea.
- f) Federazioaren jarduketaren plana onestea.
- g) Federazioaren arautegiak eta horien aldaketak onestea.
- h) Ondasun higiezinak xedatu, besterendu eta zatitzea, maila leguak eman eta zorraren edota ondarearen zati alikuotaren titulak igortzea, estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.
- i) Federazioaren bereizketa erabakitzea.

Artículo 11

1. El formato y contenido de las licencias serán los aprobados por la Asamblea General de la Federación Vasca de Golf y en dichas licencias deberán emplearse necesariamente las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. La Federación Bizkaína de Golf informará a quienes deseen federarse sobre los requisitos y efectos de las licencias federativas y recogerá los documentos y datos necesarios para la afiliación federativa.

3. Las licencias se emitirán por la Federación Vasca de Golf en un soporte que cuente con unas condiciones técnicas que permitan un adecuado aprovechamiento de las tecnologías de la comunicación y de acuerdo con las especificaciones técnicas de dichos soportes que apruebe el Gobierno Vasco.

4. En el documento de la licencia se consignarán los siguientes conceptos:

- a) Cuota de los seguros obligatorios.
- b) Cuota destinada a la Federación Vasca de Golf.
- c) Cuota destinada a la Federación Bizkaína de Golf.
- d) Cuota para participar, en su caso, en competiciones oficiales de ámbito territorial superior.

5. En el documento de la licencia se consignarán también los contenidos establecidos en el artículo 25.4 del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

Artículo 12

1. Las licencias serán de duración anual, coincidente con el año natural, salvo disposición distinta adoptada por la Federación Vasca de Golf.

2. La Federación Vasca de Golf determinará en el Reglamento de Licencias los supuestos, condiciones y efectos de la compatibilidad de las licencias que pueda ostentar una misma persona federada.

TÍTULO III**ÓRGANOS DE GOBIERNO, ADMINISTRACIÓN Y REPRESENTACIÓN****Artículo 13**

En la Federación Bizkaína de Golf existirán los siguientes órganos de gobierno, administración y representación:

- a) Un órgano de gobierno denominado Asamblea General.
- b) Un órgano de administración colegiado denominado Junta Directiva.
- c) Un órgano de representación cuyo titular será el Presidente o Presidenta de la Federación.

CAPÍTULO I**ASAMBLEA GENERAL****Artículo 14**

La Asamblea General es el máximo órgano de gobierno de la Federación y tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

- a) Elegir Presidente o Presidenta.
- b) Aprobar las cuentas y presupuestos de la Federación.
- c) Aprobar los estatutos y sus modificaciones.
- d) Aprobar la moción de censura.
- e) Aprobar el calendario de competiciones oficiales.
- f) Aprobar el plan de actuación de la Federación.
- g) Aprobar los reglamentos federativos y sus modificaciones.
- h) Disponer, enajenar y gravar bienes inmuebles, concertar préstamos y emitir títulos de deuda o de parte alícuota patrimonial, conforme a lo establecido en los presentes estatutos.
- i) Acordar la disolución de la Federación.

j) Batzar Orokorraren onespena behar duten bestelako erabaki garrantzitsuak hartzea.

15. artikulua

1. Bizkaiko Golf Federazioaren Batzar Orokorra lau urtetik behin aukeratuko da bozketa libre, zuzeneko, berdina eta isilpekoa aplikatuta.

2. Hauteskundeak beti udako joko olinpikoen datetan egingo dira.

3. Salbuespenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak aurretiaz beren beregi emandako administrazio-baimenarekin, hauteskunde-prozeduraren hasiera atzeratu edo aurreratu ahal izango da hori zehaztu datetan hastea ezinezkoa denean.

16. artikulua

1. Batzar Orokorra klubetako eta kirol-taldeetako estamentuek, kirolariek, teknikariek eta epaileek osatuko dute, jarraian azal dutako proportzioan:

a) Batzarreko kide guztien %70eko klubetako eta kirol-taldeetako estamentuaren ordezkaritza.

b) Batzarreko kide guztien %5eko kirolarien ordezkaritza.

c) Batzarreko kide guztien %10eko teknikarien ordezkaritza, federatuen artean duten proportzioaren arabera.

d) Batzarreko kide guztien %10eko epaileen ordezkaritza, federatuen artean duten proportzioaren arabera.

e) Golfaren promozioan dabiltzan elkarte eta taldeen ordezkaritza, Batzarreko kideen %5a izango dena.

2. Batzar Orokorreko kideen kopurua Hauteskunde Batzordeak zehaztuko du, hauteskunde-errola, eta, hala denean, Hauteskunde Arautegian ezarritakoa kontuan hartuta.

3. Batzarra, gehienez ere, 20 kidek osatuko dute.

17. artikulua

1. Klubetako eta kirol-taldeen estamentuaren ordezkariak, hori eskatu eta Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroan izena eman eta Bizkaiko Golf Federazioari atxikita izanik, hauteskundearen denboraldian kirol-jarduera garrantzitsua egin eta aurreko denboraldian hori izan duten klub eta taldeetako ordezkarien artean aukeratuko dira. Irizpideak arauz ezarriko dira kirol-jarduera garrantzitsuen kontzeptua ulertzeko. Eduki beharko dute, gainera, bederatzi zulodun golf zelai bat, homologatua izan dena.

2. Klub edo talde bakoitzaren botoa federatuta dauden pertsona edo talde kopuruaren arabera haztatuko da.

18. artikulua

1. Kirolarien ordezkariak hemezortzi urtetik gorako kirolarien artean aukeratuko dira, baldin eta horiek hauteskundearen denboraldirako indarreko lizentzia badute eta aurreko denboraldian ere hori indarrean izan badute. Ordezkaritza hori aurretik aipatu baldintzak betetzen dituzten hamasei urtetik gorako kirolariek aukeratuko dute.

2. Teknikariak eta epaileak hauteskundearen denboraldirako indarreko lizentzia izan eta aurreko denboraldian ere hori indarrean izan dutenen artean aukeratuko dira, lizentziaren kategoria kontuan hartu gabe.

j) Adoptar todas aquellas otras decisiones que, por su trascendencia, precisen la aprobación de la Asamblea General.

Artículo 15

1. La Asamblea General de la Federación Bizkaína de Golf será elegida cada cuatro años mediante sufragio libre, directo, igual y secreto.

2. En todo caso, las elecciones se realizarán coincidiendo con los años de celebración de los juegos olímpicos de verano.

3. Excepcionalmente, y previa autorización administrativa expresa de la Diputación Foral de Bizkaia, el inicio del proceso electoral podrá retrasarse o adelantarse cuando en las fechas de inicio previstas no resulte posible.

Artículo 16

1. La Asamblea General estará integrada por los representantes de los estamentos de clubes y agrupaciones deportivas, deportistas, técnicas y técnicos, y juezas y jueces en la siguiente proporción:

a) Una representación para el estamento de clubes y agrupaciones deportivas del 70% del total de miembros de la Asamblea.

b) Una representación para el estamento de deportistas del 5% del total de miembros de la Asamblea.

c) Una representación, en base a su proporción entre los federados para el estamento de técnicos y técnicas del 10% de los miembros de la Asamblea.

d) Una representación, en base a su proporción entre los federados para el estamento de jueces y juezas del 10% de los miembros de la Asamblea.

e) Una representación del estamento de asociaciones y colectivos dedicados a la promoción del golf, del 5% de los miembros de la Asamblea.

2. La cifra exacta de miembros de la Asamblea General se determinará, antes de cada elección, por la Junta Electoral, a la vista del censo electoral existente y de acuerdo con los criterios que, en su caso, establezca el Reglamento Electoral.

3. El número máximo de miembros de la Asamblea será de 20.

Artículo 17

1. Las y los representantes del estamento de clubes y agrupaciones deportivas se elegirán por y entre la representación de los clubes y agrupaciones que, figurando inscritas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco y adscritas a la Federación Bizkaína de Golf, hayan realizado actividad deportiva significativa durante la temporada de celebración de elecciones y que la hayan tenido en la temporada anterior. Reglamentariamente se establecerán los criterios para determinar qué se entiende por actividad deportiva significativa. Deben contar, asimismo, con un campo de golf de nueve hoyos, que haya sido homologado.

2. El voto que corresponda emitir a cada club o agrupación será ponderado atendiendo al número de personas y/o equipos federados.

Artículo 18

1. Las y los representantes del estamento de deportistas se elegirán entre deportistas mayores de dieciocho años que tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y que la hayan tenido en vigor también la temporada inmediatamente anterior. Dicha representación será elegida por las y los deportistas mayores de dieciséis años que cumplan las condiciones antes señaladas.

2. Las y los representantes del estamento de técnicos y técnicas y de jueces y juezas se elegirán por y entre quienes tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y la hayan tenido también en la temporada inmediatamente anterior, cualquiera que sea la categoría de la licencia.

3. Elkarte eta taldeen estamentuko ordezkariak federaziora atxikita dauden elkarte eta taldeon ordezkarietzek aukeratuko dituzte euren baitan.

4. Horiek zein eperako aukeratu eta epealdi horretan Batzar Orokorreko kideen artean plazaren bat hutsik geratu bada, orduan Batzar Orokorreko azken hauteskundeetan estamentu bakoitzeko ordezkoen zerrendaren buruan dagoen pertsonak edo erakundeak beteko du, Hauteskunde Arautegiak horretarako ezarri prozedura aintzat hartuta.

19. artikulua

1. Batzar Orokorra ohiko eta aparteko bilerak egingo ditu.

2. Batzar Orokorren ohiko bilera urtean behin egingo da, urtearen lehenengo sei hilabeteetan, kontuen eta aurrekontuen egoera onesteko. Egutegi ofiziala denboraldia hasi aurretik onetsi beharko da.

3. Batzar Orokorren aparteko bilera hurrengo gaiak eztabaidatzeko egingo da:

- a) Hauteskundeak egiteko.
- b) Zentsura-mozioa.
- c) Estatutuak onetsi edo aldatzeko.
- d) Federazioa bereizteko.
- e) Arautegiak onetsi edo aldatzeko.

20. artikulua

1. Ohiko eta aparteko Batzar Orokorren deialdia Federazioko presidenteak ofizioz egingo du, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Orokorreko kideen %5ek hala eskatuta. Halakorik egin ezean, edo presidenteak batzarrerako deialdia egiteko betebeharra betetzen ez badu, Zuzendaritza Batzordeak, gehiengo soilaren bidez, edo Batzarreko kideen %5 ordezkatzan duen kolektiboak deialdia egitea eskatu ahal izango du.

2. Presidenteak Batzarrerako deialdia gehienez ere egutegiko 15 egunetan egingo du, kasuan kasuko eskabidea egiten denetik zenbatuta. Presidenteak deialdia zehaztutako epean egin ez badu, orduan Zuzendaritza Batzordeak, edo, hala denean, batzarkide eskatzaileek horren deialdia egin ahal izango dute.

21. artikulua

Batzar Orokorreko deialdia, dela ohikoa dela apartekoa, eguneko gai-zerrendarekin batera, Batzarreko kideei idatziz komunikatuko zaie, gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin. Idatzizko komunikazioa baliozkoa izango da faxez, postaz, helbide elektronikoaren bidez edo erregistratzea edo gordetzea ahalbidetzen duen beste edozein baliabideren bidez egiten bada.

22. artikulua

1. Batzarreko kideek presidenteari eskatu ahal izango die eguneko gai-zerrendan gai interesgarriak jasotzea, baldin eta eskabidea, gutxienez, Batzarreko kideen %5ek egin badu, jaso beharreko gaia Federazioaren interes orokorrekoa denean; edo estamentu bateko kideen %5ek egin badu, jaso beharreko gaia estamentu horrentzat interesgarria denean. Edozein kasutan ere, eskabidea gutxienez Batzarren deialdia egin aurreko egutegiko bost eguneko aurrerapenarekin egin beharko da.

2. Eguneko gai-zerrendan jasotzeko proposatu den gaia ukatzen bada, eskatzaileari komunikatu beharko zaio, ukatze hori eragin duten arrazoiak azalduz.

23. artikulua

1. Batzar Orokorra lehenengo deialdian baliozkoa izango da kideen erdia gehi bat agertzen denean. Bigarren deialdia eratzeko nahikoa izango da parte-hartzaileen edozein kopuru.

3. Las y los representantes del estamento de asociaciones y colectivos se elegirán por y entre la representación de las asociaciones y colectivos que estén adscritos a la Federación.

4. Si durante el período para el que resultaron elegidos, se produjera alguna vacante entre los miembros de la Asamblea General, se cubrirán por la persona o entidad que encabece la lista de suplentes de cada estamento en las últimas elecciones a la Asamblea General, de acuerdo con el procedimiento que establezca al efecto el Reglamento Electoral.

Artículo 19

1. La Asamblea General se reúne en sesiones ordinarias y extraordinarias.

2. La Asamblea General se reunirá en sesión ordinaria al menos una vez al año, dentro del primer semestre del año para la aprobación del estado de cuentas y presupuesto. El calendario oficial deberá ser aprobado antes del inicio de la temporada.

3. La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria para tratar los siguientes asuntos:

- a) Celebración de elecciones.
- b) Moción de censura.
- c) Aprobación o modificación de los Estatutos.
- d) Disolución de la Federación.
- e) Aprobación o modificación de los Reglamentos.

Artículo 20

1. La convocatoria de las Asambleas generales ordinarias o extraordinarias corresponde al Presidente o Presidenta de la Federación de oficio, a petición de la Junta Directiva o del 5% de los componentes de la Asamblea General. Si ello no fuera posible, o el Presidente o Presidenta no cumpliera con su obligación de convocar la Asamblea, la Junta Directiva, por acuerdo adoptado por mayoría simple, o un colectivo de miembros de la Asamblea que represente al 5% de sus componentes podrán exigir la convocatoria.

2. El Presidente o Presidenta deberá proceder a la convocatoria a la Asamblea en el plazo máximo de 15 días naturales a partir del día que se formule la correspondiente petición. Si el Presidente o Presidenta no procediere a la convocatoria en el plazo antes indicado, tanto la Junta Directiva como, en su caso, los asambleístas peticionarios podrán proceder a su convocatoria.

Artículo 21

La convocatoria de la Asamblea General, tanto ordinaria como extraordinaria, junto con el orden del día, será comunicada a los miembros de la Asamblea, por escrito, con una antelación mínima de 15 días. La comunicación escrita será válida cuando se efectúe por fax, correo electrónico u otro medio análogo que permita, en todo caso, poder registrarse o guardarse.

Artículo 22

1. Los miembros de la Asamblea podrán solicitar del Presidente o Presidenta la inclusión en el orden del día de aquellos asuntos que consideren de interés, siempre que la solicitud se haga a propuesta, como mínimo, de un 5% de los miembros de la Asamblea, si el punto a incluir es de interés general de la Federación; o de un 5% de los miembros de uno de los estamentos, si el punto a incluir es de preferente interés para el estamento de que se trate. En todo caso la petición deberá formularse con una antelación de al menos cinco días naturales anteriores a la fecha de convocatoria de la Asamblea.

2. La denegación de la inclusión del punto propuesto en el orden del día deberá comunicarse al peticionario alegando las razones que hayan motivado la denegación.

Artículo 23

1. La Asamblea General quedará válidamente constituida en primera convocatoria cuando concurra la mitad más uno de sus miembros. En segunda convocatoria bastará con la concurrencia de cualquier número de asistentes.

2. Batzar Orokorreko kide ez diren Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak ahotsarekin baina boto-eskubiderik gabe parte hartu ahal izango dute. Gainera, ez du baliorik izango quoruma zenbatzeko.

24. artikulua

Debekatuta dago Batzar Orokorrean botoa eskuordetzea.

II. KAPITULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEA

25. artikulua

Zuzendaritza Batzordea Federazioaren administrazio-organoa da eta federazioko gaien administrazio-kudeaketa burutzen du. Hala-koak Batzar Orokorrearen gida-lerroen arabera garatu behar ditu.

26. artikulua

1. Zuzendaritza Batzordea, kideen kopuru bikoitiarekin osatutakoa, honela eratuko da:

- a) Presidente, aldi berean, Federaziokoa izango dena.
- b) Presidenteordea. Horrek presidentearen eginkizunak beteko ditu hori aldi baterako ez dagoenean edo kargua utzi duenean.
- c) Gehienez ere, 9 batzarkide.

Zuzendaritza Batzordean, gainera, diruzaina egongo da Federazioko idazkariaren laguntzarekin batera, biak ahotsarekin baina boto-eskubiderik gabe.

2. Zuzendaritza Batzordeko kargu guztiak ohorezkoak dira, idazkariaren eta diruzainaren kargua izan ezik. Azken horien kasuan, ordainsaria jaso ahal izango dute.

27. artikulua

1. Zuzendaritza Batzordeko kideak presidenteari aukeratuko ditu karguaz jabetu eta hurrengo hogeita hamar egunetan.

2. Zuzendaritza Batzordeko kideen agintaldien epemuga bata bestearen osteko lau agintalditakoa izango da, Batzar Orokorrean izan dituzten kargu guztiak zenbatzen direlarik, Presidente kargua barne.

28. artikulua

1. Federazioko presidenteari, edo, halakorik izan ezean, presidenteordeari, edo Zuzendaritza Batzordeko kideen %25eri dagokio bileretarako deialdia egitea.

2. Deialdia jorratu beharreko eguneko gai-zerrendarekin eta agiriekin batera egingo da.

3. Batzordeko kideei gutxienez bi eguneko aurrerapenarekin jakinarazpena egingo zaie, behar bezala egiaztatutako presako kasuak izan ezik.

4. Hala ere, deialdirik egin ez bada ere, ulertuko da hori baliozkoa dela kide guztiek parte hartu badute eta aho batez egin bada.

5. Kideek beren beregi onartzen dutenean, Zuzendaritza Batzorderako deialdia baliozkotzat joko da, baldin eta akordioak helbide elektronikoaren bidez, faxez edo Batzordeko kideen adierazpenak jasotzen dituzten antzeko baliabideen bidez hartu badira, baita akordio horiek hartzeko botoa ere. Kasu horretan, aktarekin batera, parte-hartzeen eta botoen egiaztatgiriak gorde beharko dituzte.

29. artikulua

1. Zuzendaritza Batzordea lehenengo deialdian eratuta egongo da kideen erdia gehi bat agertzen denean, eta, bigarren deialdian kideen %25 agertzen denean, eta, edozein kasutan ere, Federazioko presidentea edo presidenteordea bertan egon beharko

2. Todos los miembros de la Junta Directiva que no lo sean de la Asamblea General podrán asistir a ésta con voz pero sin voto. Su asistencia no podrá ser computada a efectos de quórum.

Artículo 24

No se admitirá la delegación de voto en el seno de la Asamblea General.

CAPÍTULO II

JUNTA DIRECTIVA

Artículo 25

La Junta Directiva es el órgano de administración de la Federación y ejerce las funciones de gestión administrativa y económica de los asuntos federativos que deberá desarrollar conforme a las directrices de la Asamblea General.

Artículo 26

1. La Junta Directiva, que contará con un número impar de miembros, estará compuesta por:

- a) Un Presidente o Presidenta, que lo será asimismo de la Federación.
- b) Un Vicepresidente o Vicepresidenta, que asumirá las funciones del Presidente o Presidenta en caso de ausencia temporal o cese de éste.
- c) Un máximo de 9 vocales.

La Junta Directiva contará además con un Tesorero o Tesorera y estará asistida por el Secretario o Secretaria de la Federación, ambos con voz pero sin voto.

2. Todos los cargos de la Junta Directiva son honoríficos, excepto el del Presidente o Presidenta, Secretario o Secretaria y el del Tesorero o Tesorera que podrán ser retribuidos.

Artículo 27

1. Los miembros de la Junta Directiva serán elegidos por el Presidente o Presidenta dentro de los treinta días siguientes a haber accedido éste o ésta al cargo.

2. Los miembros de la Junta Directiva podrán ser reelegidos, pero el límite temporal de mandatos seguidos será de cuatro mandatos, computándose todos los cargos directivos que hayan ostentado en la Junta Directiva, incluido, en su caso, el de Presidente o Presidenta.

Artículo 28

1. Corresponderá al Presidente o Presidenta de la Federación o, en su defecto, al Vicepresidente o Vicepresidenta, o al 25% de los miembros de la Junta Directiva, la convocatoria de las sesiones de la misma.

2. La convocatoria se acompañará del orden del día donde figuren los asuntos a tratar, y de la documentación relativa a los mismos.

3. Será notificada por escrito a los miembros de la Junta con al menos dos días de antelación, salvo supuestos de urgencia debidamente justificados.

4. No obstante, aunque no haya convocatoria, se entenderá válidamente constituida si concurren todos sus miembros y así lo acuerdan por unanimidad.

5. Siempre que así lo acepten expresamente sus miembros la Junta Directiva se entenderá válidamente convocada y celebrada si adopta sus acuerdos a través de correo electrónico, fax o cualquier otro medio técnico que permita recoger las manifestaciones de los miembros de la Junta, así como su voto para la adopción de los correspondientes acuerdos. En este caso, junto con el acta, deberán conservarse los justificantes de las intervenciones y votos.

Artículo 29

1. La Junta Directiva quedará válidamente constituida cuando concurren en primera convocatoria la mitad más uno de sus miembros, y en segunda convocatoria cuando concurren al menos un 25% de sus miembros, y, en todo caso, el Presidente o Presidenta

da. Deialdia Batzordeko kideen %25ek eskatu duenean, ulertuko da Batzordea eratuta dagoela kideen erdia gehi bat agertu bada.

2. Federazioko presidenteari, edo halakorik ez dagoenean, presidenteordeak Zuzendaritza Batzordeko bilerak zuzenduko ditu eta horren jarduketa gidatu eta koordinatuko du. Bata edo beste ez badago, pertsona zaharrenak zuzenduko du.

30. artikulua

1. Hona hemen Zuzendaritza Batzordeak bere kargua uzteko arrazoiak:

a) Presidenteari, edo, horri nahiz Zuzendaritza Batzordeari osotasunean zuzendutako zentsura-mozioa onesteagatik.

b) Adierazpen administratiboaren edo judizialaren ondoriozko desgaitzazarengatik.

c) Presidenteak dimititzeagatik.

d) Kideen erdia baino gehiagok dimititzeagatik edo horiek hiltzeagatik, presidenteari dimititu dutenak edo hildakoak ordeztu ez baditu.

2. Hona hemen Zuzendaritza Batzordeko kideek euren kargua uzteko arrazoiak:

a) Dimisioa.

b) Heriotza.

c) Presidenteak bere kargua uztea.

d) Modu judizialean adierazitako ezgaitasuna.

e) Kirol-denboraldi batean ondoz ondoko edo txandakako hiru batzarretara ez agertzeagatik, salbu eta justifikatutako arrazoiak gertatu direnean.

f) Presidenteak horien karguak utzi dituztenean.

3. Presidenteak, Zuzendaritza Batzordeko kide batek edo gehiagok bere kargua utzi, borondatez dimititu, hil edo ezgaitu badira, plaza hutsak betetzeko beste pertsona batzuk izendatu ahal izango ditu.

31. artikulua

1. Batzar Orokorrek presidenteari eta Zuzendaritza Batzordearen erantzukizuna zentsura-mozio baten bitartez eskatu ahal izango dute. Zentsura-mozio hori ondore horretarako antolatutako Batzar Orokorreko kideen gehiengo absolutuak onetsi beharko du.

2. Zentsura-mozio horren onespenez Zuzendaritza Batzordeko kide guztien kargua uztea eragingo du, Federazioko presidenteari kargua uztea barne.

32. artikulua

1. Zuzendaritza Batzordeko presidenteari kargua hutsik geratzen bada, horrek funtzioak presidenteari izaten jarraituko du eta Hauteskunde Batzorderako deialdia egingo du, gehienez ere, hila-beteko epean, hauteskunde-prozesua hasi eta Zuzendaritza Batzordeak izendatutako duen presidenteari aukeratzeko xedearekin.

2. Hori egitea ezinezkoa bada, gutxienez Batzar Orokorreko kide guztien %5 ordezkatzeko duen edozein kolektibok Hauteskunde Batzorderako deialdia egin ahal izango du.

33. artikulua

Federazioko idazkariak, gutxienez ere, hurrengo eginkizunak bete beharko ditu:

a) Batzar Orokorreko eta Zuzendaritza Batzordeko bileren aktak egitea.

b) Federazioaren liburuak eta gainerako agiriak zaintzea, kontabilitatekoak izan ezik.

c) Aipatu liburuen edukari buruz bidezkoak diren ziurtagiriak lutzatzea.

de la Federación o el Vicepresidente o Vicepresidenta. Cuando la convocatoria haya sido instada por el 25% de los miembros de la Junta quedará válidamente constituida si concurren a la misma la mitad más uno de sus miembros.

2. El Presidente o Presidenta de la Federación o, en su ausencia, el Vicepresidente o Vicepresidenta, presidirá las sesiones de la Junta Directiva y dirigirá y coordinará su actuación. En caso de ausencia de uno u otro u otra, la presidirá la persona de mayor edad.

Artículo 30

1. La Junta Directiva cesará por alguna de las siguientes causas:

a) Por aprobación de moción de censura formulada al Presidente o Presidenta, o a este o esta y conjuntamente a la Junta Directiva.

b) Por inhabilitación declarada administrativa o judicialmente.

c) Por dimisión del Presidente o Presidenta.

d) Por dimisión o fallecimiento de más de la mitad de sus miembros, en caso de que el Presidente o Presidenta no haya procedido a la sustitución de los dimitidos o fallecidos.

2. Los miembros de la Junta Directiva cesarán por alguna de las siguientes causas:

a) Por dimisión.

b) Por fallecimiento.

c) Por cese del Presidente o Presidenta.

d) Por incapacitación declarada judicialmente.

e) Por inasistencia a tres o más sesiones de la Junta consecutivas o alternas durante una temporada deportiva, salvo causa mayor justificada.

f) Por ser cesados/as por el Presidente o Presidenta.

3. El Presidente o Presidenta podrá, en caso de cese, dimisión voluntaria, fallecimiento o incapacitación de uno o más miembros de la Junta Directiva, nombrar a otras personas para ocupar las vacantes.

Artículo 31

1. La Asamblea General podrá exigir la responsabilidad del Presidente o Presidenta y la de la Junta Directiva mediante la adopción de una moción de censura que deberá ser respaldada por la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea General en una sesión convocada al efecto.

2. La aprobación de la moción de censura causará el cese de todos los miembros de la Junta Directiva, incluido el Presidente o Presidenta de la Federación.

Artículo 32

- e) Transakzioak eta arbitrajeak adostea, Federazioaren interesei hala komeni zaienean.
- f) Hartzekodunei ordaintzea.
- g) Federazioaren ordezkari izatea.

83. artikulua

Likidazioa amaitutakoan, likidatzaileek azken balantzea egingo dute. Balantzea Batzar Nagusian aurkeztuko da, bertan onetsia izan dadin. Balantzearen emaitza positiboa bada Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzari bidaliko zaio, bertan, indarrean dagoen lege-dian ezarritakoaren arabera, foru organo hori izan dadin Federazioa desagitearen ondoriozko ondareari emango zaion xedea zein den erabakiko duena.

84. artikulua

Honako hauek dira likidatzaileen jardura amaitzeko arrazoiak:

- a) Likidazioa burutzea.
- b) Batzar Nagusiak emandako ahalordeak baliogabetzea.
- c) Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak ahalordeak baliogabetzea edo gaitasunik gabe uztea.
- d) Erabaki judiziala.

85. artikulua

Baldin eta Federazioak ez badu kaudimenik, likidatzaileek berehala eskatu behar dute dagokion lehiaketa adierazpena.

86. artikulua

Federazioaren desagitean batzorde likidatzaileak jakinaraziko dio Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroari, inskripzioan deuseztatu dezan.

X. IZENBURUA ESTATUTUAK ETA ARAUDIAK

87. artikulua

Bizkaiko Herri Kirol Federakundearen estatutuak aparteko Batzar Nagusiak bakarrik aldatu ahal izango ditu, bildutakoan 2/3en gehiengoaz hartutako erabakiaren bidez.

88. artikulua

Behin estatutuen proiektua onetsi ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzari igorriko zaizkio, Batzar Nagusiaren erabakitik kontatzen hasi eta hirurogei (60) egun naturaleko epean.

89. artikulua

Aipatu estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan aurkeztu beharko dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzen duen euskarri informatikoan.

90. artikulua

Federazioko estatutuak indarrean sartzeko, administrazioaren onarpena jaso beharko dute, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

91. artikulua

Bizkaiko Herri Kirol Federakundeak ondorengo hauek arautu beharko ditu gutxienez:

- a) Lehiaketa ofizialak antolatze eta garatzeko araubidea.
- b) Diziplina-araubidea.
- c) Hauteskunde-araubidea.
- d) Auziak judizioz kanpo ebazteko araubidea.

- e) Concertar transacciones y arbitrajes cuando así convenga a los intereses federativos.
- f) Pagar a los acreedores y acreedoras.
- g) Ostentar la representación de la Federación.

Artículo 83

Terminada la liquidación, las y los liquidadores formarán el balance final que se someterá a la aprobación de la Asamblea General y, si ese balance final arroja saldo positivo se remitirá a la Dirección de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia, para que, de conformidad con lo establecido en la legislación vigente sea este órgano foral el que decida acerca del destino a dar al patrimonio resultante de la disolución de la Federación.

Artículo 84

La función de las y los liquidadores finalizará por:

- a) La realización de la liquidación.
- b) La revocación de los poderes otorgados por la Asamblea General.
- c) La revocación de los poderes o inhabilitación por la Dirección de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.
- d) Por decisión judicial.

Artículo 85

En caso de insolvencia de la Federación, las y los liquidadores deberán solicitar inmediatamente la declaración concursal correspondiente.

Artículo 86

La extinción de la Federación se notificará por la comisión liquidadora al Registro de Entidades Deportivas del País Vasco para que proceda a la cancelación de la inscripción.

TÍTULO X ESTATUTOS Y REGLAMENTOS

Artículo 87

Los estatutos de la Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos sólo podrán ser modificados por acuerdo de la Asamblea General extraordinaria adoptado por mayoría de 2/3 de miembros presentes en la reunión.

Artículo 88

Aprobado el proyecto de estatutos se enviará a la Dirección de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia en el plazo de sesenta (60) días naturales a partir del acuerdo de la Asamblea General.

Artículo 89

Dichos estatutos deberán presentarse en las dos lenguas de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en el soporte informático que sea requerido por el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

Artículo 90

La vigencia de los estatutos de la Federación estará vinculada a su aprobación administrativa y posterior publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Artículo 91

La Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos deberá reglamentar como mínimo:

- a) El régimen de organización y desarrollo de sus competiciones oficiales.
- b) El régimen disciplinario.
- c) El régimen electoral.
- d) El régimen de resolución extrajudicial de conflictos.

92. artikulua

Bizkaiko Herri Kirolen Federakundeko araudiak Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzari onar ditzan aurkeztuko zaizkio, hiru-roguei (60) egun naturaleko epean, Federazioko Batzar Nagusian onartzen diren unetik zenbatzen hasita.

93. artikulua

Araudiak onartu eta aldatu ahal izateko, beharrezkoa da horretarako deitutako aparteko batzar nagusira bertaratzeko diren kideen gehiengoak horren aldeko botoa ematea.

94. artikulua

1. Federazioaren zirkularrak estatutuen eta arautegien indaraldia, ezarpena, interpretazioa nahiz Federazioari dagozkion bestelako gaiak ezagutarazteko erabiliko dira, baina ez dute berezko arau izaerarik izango.

2. Federazioaren zirkularrek ez dute aldeaz aurretik administrazio onarpenik izan behar.

95. artikulua

1. Lurralde eremu handiagoko kirol federazioen estatutuak eta araudiak Federazio honi eta bere kideei aplikatu dakizkieke soilik baldin Bizkaiko Federazio hau haietako kide bada, eta federazio horiek eskumena duten gaien inguruan baino ez. Kasu horietan, Bizkaiko Herri Kirol Federakundeak arau horiek behar adina zabaldu beharko ditu, Federazioko estamentu desberdinek behar bezala ezagut ditzaten. Arauek Federazioaren hizkuntza ofiziale-takoren batean idatzia egon behar dute.

2. Lurralde eremu handiagoko kirol federazioen gainerako araudiak ez zaizkio zuzenean aplikatuko Bizkaiko Herri Kirol Federakundeari eta horren kideei. Federazioaren araudian sartu ahal izateko, federazioaren eta administrazioaren onarpena beharko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan erregistratzea beharrezkoa izango da.

3. Erkidegoaz gaindiko kirol federazioen araudiak ezin izango dira era osagarrian aplikatu Bizkaiko Herri Kirol Federakundean. Hala ere, arau horiek era osagarrian aplikatu ahal izango ditu, baldin eta bere araudietan berariaz hala ezartzen bada, behar bezala ezagutarazten badira eta federatuei arau horiek Federazio honen hizkuntza ofiziale-takoren batean idatzita eskaintzen bazaizkie.

XI. IZENBURUA**HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA****96. artikulua**

Bizkaiko Herri Kirol Federakundearen hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira.

97. artikulua

Bizkaiko Herri Kirol Federakundearen organoek Federazioaren baitan euskara normalizatzeko pixkanakako prozesua bermatu dute, 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko Hirugarren Xedapen Iragankorra.

98. artikulua

Bizkaiko Herri Kirol Federakundearen ziurtapenak Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzatan edo horietako batean igorri ahal izango dira, interesatutako pertsonak azaldutakoaren arabera.

XII. IZENBURUA**GATAZKAK JUDIZIOZ KANPO EBAZTEA****99. artikulua**

Federazioaren eta federatu edo kideen artean nahiz horien artean sor daitezkeen auziak edo diferentziak Zuzenbide Arbitra-

Artículo 92

Los reglamentos de la Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos se presentarán para su aprobación administrativa en la Dirección de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia en el plazo de sesenta (60) días naturales a contar desde su aprobación por la Asamblea General.

Artículo 93

Para la aprobación y modificación de los reglamentos será preciso el voto favorable de la mayoría de los asistentes a la Asamblea General extraordinaria convocada al efecto.

Artículo 94

1. Las circulares federativas servirán para notificar e informar sobre la vigencia, aplicación o interpretación de estatutos y reglamentos, o sobre otras cuestiones federativas, pero no tendrán naturaleza normativa.

2. Las circulares federativas no precisarán de aprobación administrativa previa.

Artículo 95

1. Los estatutos y reglamentos de las federaciones de ámbito territorial superior sólo serán directamente aplicables a la Federación y a sus miembros si esta Federación Bizkaína se halla integrada en aquellas federaciones y respecto a las materias que son competencia de las mismas. En tal caso, la Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos deberá divulgar dichas normas para un efectivo conocimiento por los distintos estamentos de la Federación. Tales normas deberán estar escritas en alguna de las lenguas oficiales de esta Federación.

2. Las demás normas de las federaciones deportivas de ámbito territorial superior no serán directamente aplicables a la Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos y a sus miembros. Sólo se incorporarán a la normativa propia de la Federación cuando se produzca su aprobación federativa y administrativa así como su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

3. Los reglamentos de las federaciones deportivas supraautonómicas no resultarán de aplicación supletoria en la Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos. No obstante, podrá aplicar supletoriamente dichas normas siempre que exista una remisión expresa en sus reglamentos, tales normas estén difundidas suficientemente y se hallen escritas en alguna de las lenguas oficiales de esta Federación.

TÍTULO XI**NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA****Artículo 96**

El euskera y el castellano constituyen lenguas oficiales de la Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos.

Artículo 97

Los órganos de la Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos garantizarán un proceso gradual de normalización lingüística en el seno de la Federación conforme a lo dispuesto en la Disposición Transitoria Tercera del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

Artículo 98

Las certificaciones de la Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos podrán emitirse en bilingüe o en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma en función de lo manifestado por la persona interesada.

TÍTULO XII**RESOLUCIÓN EXTRAJUDICIAL DE CONFLICTOS****Artículo 99**

Las diferencias o cuestiones litigiosas que puedan plantearse entre la Federación y sus federados o miembros o entre estos serán

jearen bidez ebatziko dira, indarrean dagoen legedian, Estatutu hauetan eta garapen-araudian ezarritako terminoetan.

100. artikulua

Arbitraje bidez ebazti daitezkeen auzi edo diferentziak edo, oro har, judizioz kanpoko ebazti daitezkeen gatazkak, Kirol Arbitrajeko Euskal Auzitegiaren pean jarriko dira.

101. artikulua

Administrazioak Federazioarengan eskuordetutako funtzio publikoen gauzatzearekin zerikusia duten gaiak eta legediak berariaz eta legez arbitrajetik kanpo uzten dituen horiek salbu, beste guztiak bide horretatik ebatziko dira.

102. artikulua

Estatutu hauek onesten diren datatik edo lizentzia eskuratzen denetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean berariaz uko egiten ez duen federatu edo Federazioko kide oro Estatutu hauetan eta horien garapenerako araudian aurreikusitako arbitraje sistemaren eta gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren pean jarriko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena

Eusko Jaurlaritzak 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 25. artikuluan aurreikusitako lizentzien ezaugarri teknikoak onesten ez dituen bitartean, Federazioak egoki irizitako formatuan igorriko ahal izango ditu lizentziak.

Bigarrena

Estatutu hauetako 27. eta 37. artikuluetan ezarritako agintemugek ez dute eraginik izango estatutu hauek indarrean sartzean lehendik dauden karguetan, eta, ondorioz, kargu horiek beren egungo agintaldiak amaitu ahal izango dituzte. Kargu horiei hurrengo hauteskunde-prozesuetarako bakarrik izango zaizkie aplikagarri estatutuetako aipatu mugak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira estatutu hauen inskripzio- eta argitalpen-data arte indarrean egon diren Bizkaiko Herri Kirol Federakundearen estatutuak.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunean sartuko dira indarrean.

(I-1193)

Hirigintza eta Udal Harremanen Saila

Ekainaren 15eko 836/2007 FORU AGINDUA, Hirigintza eta Udal Harremanen foru diputatuarena, Busturiko Udalari, Sukarrieta eta Busturia arteko muga-lerroko 12 eta 13. zedarrien mugaketa-espedientearen tramitazioa egiteko baimena ukatzen diona.

Ikusirik Busturiko Udalak, Busturia eta Sukarrieta udalak 1976ko maiatzaren 11n adostutako mugaketa-zuzentzeko, mugaketa horren 12 eta 13. zedarrien kokapenaren eta kentzearen legez-kotasuna aztertu ahal izateko hasi duen espedienteak.

Ikusirik Sukarrietako Udalak, 12 eta 13. zedarrien kokapenaren eta kentzearen legez-kotasuna aztertzeke beste mugaketa bat egiteari uko egin diola, zedarri horiek udal bien artean 1976an aho batez adostu eta 2002an onartutako aurreko azken mugaketako toki berean eta era berean mantendu direlako.

Kontuan hartuta Busturiko Udalak Sukarrieta-erako muga-lerroko 12 eta 13. zedarrien kokapenaren eta kentzearen legez-kotasuna aztertzeke mugaketa-espedienteak tramitatzeko baimena eskatu duela, honako hauetan oinarrituta:

resueltas por medio de Arbitraje en Derecho, en los términos establecidos en la legislación vigente, en los presentes Estatutos y en el Reglamento de desarrollo.

Artículo 100

Las diferencias o cuestiones litigiosas susceptibles de ser resueltas mediante arbitraje o, en general, resolución extrajudicial de conflictos, serán sometidas al Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo.

Artículo 101

Salvo las cuestiones relacionadas con el ejercicio de funciones públicas delegadas por la Administración a la Federación y las materias legal y expresamente excluidas de arbitraje por la legislación, las demás serán resueltas por esta vía.

Artículo 102

Todo federado o miembro de la Federación que, en el plazo de un mes, a contar desde la fecha de aprobación de los presentes Estatutos o desde la fecha en que obtenga licencia no renunciar expresamente se supone queda sometido al sistema de arbitraje y resolución extrajudicial de conflictos previsto en los presentes Estatutos y en el Reglamento de desarrollo.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera

Hasta que el Gobierno Vasco no apruebe las especificaciones técnicas de las licencias, previstas en el artículo 25 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, la Federación podrá seguir emitiendo las licencias con el formato que estime oportuno.

Segunda

Las limitaciones de mandatos establecidas en los artículos 27 y 37 de los presentes estatutos no afectarán a los cargos existentes a la entrada en vigor de estos estatutos y dichos cargos podrán, en consecuencia, finalizar sus actuales mandatos. A tales cargos sólo les resultará de aplicación las citadas limitaciones estatutarias para próximos procesos electorales.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados los estatutos de la Federación Vizcaína de Juegos y Deportes Vascos que han estado vigentes hasta la fecha en que éstos sean inscritos y publicados.

DISPOSICIÓN FINAL

Los presentes estatutos entrarán en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

(I-1193)

Departamento de Relaciones Municipales y Urbanismo

ORDEN FORAL 836/2007, de 15 de junio, del diputado foral de Relaciones Municipales y Urbanismo, por la que se deniega al Ayuntamiento de Busturia la tramitación del expediente de deslinde de los mojones números 12 y 13 en la línea de término entre Sukarrieta y Busturia.

Visto el expediente iniciado por el Ayuntamiento de Busturia para la corrección del deslinde acordado entre los Ayuntamientos de Busturia y Sukarrieta el 11 de mayo de 1976 para el examen de la legalidad de la localización y supresión de los mojones números 12 y 13 de dicho deslinde.

Visto el acuerdo adoptado por el Ayuntamiento de Sukarrieta oponiéndose a un nuevo deslinde para el examen de la legalidad de la localización y supresión de los mojones números 12 y 13, dado que se mantienen en la misma forma y en el mismo lugar indicado en el último deslinde anterior consentido entre ambos Ayuntamientos por unanimidad en 1976 y reconocido en 2002.

Considerando que el Ayuntamiento de Busturia solicita la tramitación del expediente de deslinde para el examen de la legalidad de la localización y supresión de los mojones números 12 y 13 en la línea de término con Sukarrieta, en base a que:

1. Hasteko eta behin, udalerri bien arteko 1949ko apirilaren 5eko mugaketaren aktak lehen zedarritik hamaikagarrenera bitartekoak baino ez dituela onartzen, eta horretan 1976ko maiatzaren 11ko aktan adierazitakoarekin bat dator.

2. Ezin da inondik inora ere jo Busturia eta Sukarrieta arteko mugatzat aipatutako balizko zedarriak (12 eta 13), Busturia ibaiaren itsaso eta lehorren arteko aldearekin mugatzen dutenak. Itsasaldearen eta udal mugartearen arteko mugaketa, ordea, itsasaldeei buruzko gaietako eskumenak dituen Estatuaren administrazioari dagokio, Itsasaldeei buruzko indarreko Legearen 12. artikuluan eta horren hurrengoetan eta 1471/1989 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Itsasaldeei buruzko Araudiaren artikuluko egokietan xedatutakoarekin bat etorritz.

3. Hortaz, Sukarrieta eta Busturia udalerrien arteko mugalerroa onartzeko 2002ko apirilaren 24an egin den eragiketa horrek erabateko baliozkotasuna du udalerri bien arteko lurreko mugei dagokionez, baina 11. zk.ko zedarriari buruzko salbuespena eginda, behin aipatu zenez Busturiko Udaleko ordezkariak ez zutelako onartu.

Ondorioz, udalerri bien arteko lehorreko zedarriak argi eta garbi zehazten dituzte Busturia eta Sukarrietako udal mugarte mugak, baina, zedarri horien (12 eta 13. zedarriak) izaera, legezkotasuna eta kentzea berraztertze, foru legerian (8/1993 Araua) eta, ordezeko legez, tokiko legerian (Toki erakunde bizi tangune eta lurralde mugapeari buruzko Araudiaren 17. art. eta horren ondorengoak) xedatutako prozedurari jarraitu behar zaio.

Kontuan hartuta Sukarrietako Udalak 12 eta 13. zedarrien kokapen eta kentzearen legezkotasuna aztertze beste mugaketa bat egiteari uko egin diola, udalerri bien artean egindako azken mugaketan —1976ko maiatzaren 11n egin eta udal biek aho batez onartua— eta Busturia eta Sukarrietako udal mugarte arteko mugalerroa onartzeko egindako eragiketaren aktan —2002ko apirilaren 24an egin zedarri guztiei buruzkoa aho batez onartua, Busturiko Udalak 11. zk.ko zedarriari buruz egindako oharra izan ezik— adierazitako era eta toki beretan jarraitzen dutelako; hortaz ez da bidezkotzen 12 eta 13. zk. etako zedarrien legezkotasuna eta kentzearen azterketa, zedarriak desagertu egin direlako edo oker materialak edo prozedurako akatsak daudelako.

Kontuan hartuta Geografi Erakunde Nazionalak, eskatutakoa betetzeko, Sukarrieta (orduan Pedernales) eta Busturiko udal mugarte artean 1976ko maiatzaren 11n egindako azken zedarriketaren akta igorri ziola Bizkaiko Foru Aldundiari, udal biek onartua eta udal zigorluz, nork berea, sinatua, baita zedarriketa horren oinarri legez erabili ziren 1952ko urtarrilaren 18ko topografi lanak ere.

Kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiak, San Antonio izeneko aldearen lurralde antolamenduari buruzko behin betiko erabakia hartzeko, eta 1976an egindako zedarriketaren akta ikusita eta mugalerro horren ibilbide-liburu berririk ageri ez denez gero, udalerri bien arteko mugalerroa aztertze eskaria egin zion Geografi Erakunde Nazionalari. Azterketa horri dagozkion agiri tekniko guztiak daude espedientearen, honako hauek, alegia:

- 1976ko mugaketaren akta ofiziala.
- 1949 eta 1976ko landa-liburuak.
- Zedarrien jatorrizko fitxak, 2002ko martxoan eta apirilean aztertuak eta UTM koordinatuak dituztenak.

Kontuan hartuta akta horretan «ontzat eman zirela aurkitu eta markatutako zedarriak, Geografi Erakunde Nazionalak aurretiaz egindako lanetan (1, 2, 3, 5, 6, 7, 9, 10, 12, 13, 14, 15, 16, 19, 21, 22 eta 23. zedarriak eta 24.aren osagarria), baita aurkitu ez diren zedarrien kokapen berria ere (4, 8, 11, 17, 18 eta 20. zedarriena)», azterketaren aktari Geografi Erakunde Nazionalaren agiriaren kopia batu zaiolarik, 11. zk.ko zedarriaren salbuespen bakarra eginez, hortaz Busturiko Udaleko ordezkariak zuinetari buruzko oharra egin baitzuten, ez zegoela toki zuzenean kokatua uste izanik.

1. En primer lugar, el Acta de deslinde entre ambos municipios de 5 de abril de 1949, sólo reconoce como existentes los mojones primero al décimo, tal como se declara en el Acta de 11 de mayo de 1976.

2. En ningún caso puede considerarse como límites de Busturia con Sukarrieta los supuesto mojones (12 y 13) que delimitan Busturia con la zona marítimo terrestre de la Ría. El deslinde, en su caso, de la costa con el término municipal corresponde llevarlo a cabo a la Administración del Estado competente en materia de costas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12 y siguientes de la vigente Ley de Costas de 1986 y en los artículos correspondientes del Reglamento de Costas aprobado por el Real Decreto 1471/1989.

3. Por lo tanto, la operación practicada para reconocer la línea de término entre los municipios de Sukarrieta y Busturia, llevada a cabo el 24 de abril de 2002 tiene plena validez en lo que concierne a los límites terrestres entre ambos municipios, con la salvedad relativa al mojón número 11, que, tal como se señaló en su momento, no fue aceptada por los representantes del Ayuntamiento de Busturia.

En conclusión, los mojones terrestres entre ambos municipios delimitan claramente los límites entre los términos municipales de Busturia y Sukarrieta, pero, para la revisión de la existencia, legalidad y supresión de los supuestos mojones (12 y 13), se debe seguir el procedimiento establecido en la legislación foral (Norma 8/1993) y, supletoriamente, local (artículos 17 y ss. del Reglamento de Población y Demarcación territorial de las Entidades Locales).

Considerando que el Ayuntamiento de Sukarrieta se opone a un nuevo deslinde para el examen de la legalidad de la localización y supresión de los mojones números 12 y 13, dado que se mantienen en la misma forma y en el mismo lugar indicado en el último deslinde practicado entre ambos términos municipales el 11 de mayo de 1976, adoptado con el acuerdo unánime de ambos Ayuntamientos, y en el Acta de la operación practicada para reconocer la línea límite entre los términos municipales de Busturia y Sukarrieta y señalar mojones comunes a ambos términos municipales el 24 de abril de 2002, aprobada por unanimidad en relación a todos los mojones a excepción de la reserva realizada por Busturia con respecto al mojón número 11, por lo que no se justifica el examen de la legalidad y supresión de los mojones números 12 y 13 por haber desaparecido los mojones, o por existir errores materiales o vicios de procedimiento.

Considerando que en cumplimiento de lo solicitado, el Instituto Geográfico Nacional remitió a la Diputación Foral de Bizkaia el Acta del último deslinde levantado el 11 de mayo de 1976 entre los términos municipales de Sukarrieta (entonces Pedernales) y Busturia, reconocido y firmado por ambos municipios con sus respectivos sellos municipales, así como los trabajos topográficos de 18 de enero de 1952 sobre los que se basa dicho deslinde.

Considerando que la Diputación Foral de Bizkaia en orden a tomar una decisión definitiva sobre la ordenación territorial de la zona de San Antonio, a la vista del Acta de deslinde practicado en 1976 y no existiendo constancia de nuevos cuadernos de itinerarios de la citada línea límite, solicitó al Instituto Geográfico Nacional el reconocimiento de la línea límite entre ambos términos municipales. Consta en el expediente toda la documentación técnica correspondiente a este reconocimiento consistente en:

- Acta oficial de deslinde de 1976.
- Cuadernos de Campo de 1949 y 1976.
- Fichas originales de los mojones, reconocidos en marzo y abril de 2002 y con coordenadas U.T.M.

Considerando que en dicha Acta «se dieron por buenos los mojones localizados y señalados, en labores previas realizadas por el Instituto Geográfico Nacional (mojones 1, 2, 3, 5, 6, 7, 9, 10, 12, 13, 14, 15, 16, 19, 21, 22, 23 y auxiliar del 24) así como la reubicación de los mojones que no han sido localizados (mojones 4, 8, 11, 17, 18 y 20)», uniéndose al Acta del reconocimiento copia de la documentación del Instituto Geográfico Nacional, con la única salvedad del mojón número 11 sobre el que los representantes del Ayuntamiento de Busturia manifestaron reserva sobre su replanteo al considerar que no había sido correctamente emplazado.

Kontuan hartuta Bizkaiko udal mugarteei buruzko 8/93 Foru Arauaren 6 eta 7. artikulua xedatzen dutela udal mugarten mugapena bat datorrela arau hori indarrean jartzean indarrean zegoen mugaketarekin, eta udal mugarten mugak zehazteko zehaztapen berririk ezin dela egin interesatutako udalek orduan zeuden mugetik adostasuna adierazi zutenean, muga horiek ezarri ziren aktetako data edozein izanik ere, salbu eta mugaketan oker materialak edo prozedurako funtsezko akatsak egon direla egiaztatzen diren aparteko salbuespenetan, Auzitegi Gorenaren epaiek —besteak beste 1972ko urriaren 20koak, 1987ko abenduaren 4koak eta 2002ko maiatzaren 8koak— jasotzen duten salbuespenean.

Horrela dio 1984ko abenduaren 4ko epaiak:

«(..) egia da korporazio biek euren borondatez egindako zedarriketaren akta hau alde bientzat beren beregiko egintza dela, alde biek errespetatu behar dutena, gure Goi-Auzitegiaren doktrina tradizionalari jarraituta, eta ondorioz akta horretan funtsezko akatsik ageri ez direnez gero, aktaren edukia begiratu beharko zaio.

(...) eta haien arteko muga-lerroak jarraitu behar duen tokia zehazteko erari dagokionez, egun dauden mugetan interesatutako udalek ados egonik, ezarrita geratu den aktetako data edozein izanik ere, berriro finkatzeko egintzarik eragozten zuelarik, salbu eta aurreko mugaketan oker materialak edo prozedurako akatsak agiri bidez bidezkotzen diren aparteko salbuespenetan, —eta kasu honetan ez dago horrelakorik egiaztatzen duenik—».

Kontuan hartuta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak doktrinaren aho batez behin baino gehiagotan adierazi izan duela hamaika epairen bidez «mugatzea» dela korporazio bakoitzari dagokiona seinatu eta bereiztea, udalerriaren lerroa nondik nora doan zehaztuta, muga jurisdikzional baten inguruan egon daitezkeen zalantzak ebatzi eta argituz, espediente horietan besterik ezin delarik ebatzi. Auzitegi Gorenarentzat mugatzea da udal bi edo gehiagoren artean, zeinena den «beste administrazio egintza irmo eta baimenduaren bidez geldirik eta bakez haierariko inork ez duen» lurraldea.

Aldi berean, orain arteko jurisprudentziak onartu izan du agiri publiko batean agerrarazitako mugaketak ezin direla beste zedarriketa baten bidez aldarazi eta ezin dela mugakide diren udalerrien arteko muga jurisdikzionalari buruzko arazorik azaldu, udalerri interesatutako ordezkariak muga horiek finkatu eta elkarren arteko erabakiari esker onartu dituztenean.

Kontuan hartuta Estatuko Kontseiluaren doktrina bat datorrela Auzitegi Gorenarenarekin, eta hartan oinarritzen dela. Horrela, besteak beste, 1946ko azaroaren 6ko 2179 zk.ko irizpena. Irizpen horrek hauxe dio:

«Doktrina horri etengabe eutsi izan diote, besteak beste, 1881eko abuztuaren 5eko errege dekretu-epaiak eta 1906ko urtarrilaren 4ko errege aginduak, hau da «agiri publikoetan agerrarazitako udal mugarten mugaketak indarrean dira eta errespetatu egin behar dira harik eta haiek aldatzea balio bereko ondorengo beste agiri publikoen batzuen bidez edo Zuzenbideak onartutako bestelako legezko baliabide batzuen bidez bidezkotzen ez diren bitartean», eta etengabeko doktrina dira, baita ere, mugaketa horiek «zuzenbideko behin betiko egoerak sortzen dituztela, baieztatuak izan eta denboran eta forman haien aurka gorago jotzen ez denean».

Aurretik adierazi denez, onartutakoa eta irmoa den aurreko mugaketa bat berriro aztertzeke 8/1983 Foru Arauaren 7. artikulua salbuespenezkotzat jotzen duen balizkoa baino ezin da argudiatu, aurreko mugaketan oker materialak edo prozedurako akatsak daudela egiaztatzen duena (Auzitegi Gorenaren arabera, agiri bidez).

Kontuan hartuta Auzitegi Gorenak 2006ko urriaren 11n, besteak beste, emandako epaiak nabarmendu duela «(..) ez dagoela oker materialik, horrelakorik aintzak hartzeko oinarria iritzia bada, edo itxuraz hura zuzentzeak zuzendu nahi den egintzaren edukia funtsezko aldaketa benetan dakarrenean».

Halaber, Galiziako Justizi Auzitegi Gorenaren 1999ko abenduaren 1eko epaiak dio «(..) Interesatutako udalak bat datozenean egun dauden mugekin, muga horiek ezarri ziren aktetako data edo

Considerando que los artículos 6 y 7 de la Norma Foral 8/93, de términos municipales de Bizkaia, establecen que la demarcación de términos municipales se corresponde con su delimitación vigente a la entrada en vigor de la Norma, no pudiendo haber una nueva fijación de límites de los términos municipales cuando los Ayuntamientos interesados hubieran mostrado su conformidad con los límites existentes, cualquiera que sea la fecha de las actas en que hubieran quedado establecidos, salvo supuestos excepcionales en que se acredite la existencia de errores materiales o vicios esenciales de procedimiento en la delimitación, supuesto que recoge las Sentencias del Tribunal Supremo, entre otras, de 20 de octubre de 1972, 4 de diciembre de 1987 y la de 8 de mayo de 2002.

Dice así la sentencia de 4 de diciembre de 1984:

«(..) es lo cierto que esta acta de deslinde, llevada a cabo voluntariamente por ambas Corporaciones supone un acto propio para las partes, que ha de ser respetado por ambas, siguiendo la doctrina tradicional de nuestro Tribunal Supremo, y en consecuencia no apareciendo vicios esenciales en dicha Acta ha de estarse a su contenido.

(...) en cuanto a la manera de apreciar el sitio por donde debe pasar la línea divisoria de los mismos, por conformidad de los Ayuntamientos interesados en los límites existentes, cualquiera que fuera la fecha de las actas en que hubiera quedado establecida, impedía proceder a una nueva fijación, salvo casos excepcionales — que nada acredita se den en el supuesto que nos ocupa — en que documentalmente se justifiquen errores materiales o vicios de procedimiento en la delimitación anterior.»

Considerando que la jurisprudencia del Tribunal Supremo, con unanimidad de doctrina, viene declarando en innumerables sentencias que «deslindar» es señalar y distinguir lo que corresponda a cada Corporación, determinando por donde va la línea del municipio, resolviendo y aclarando las dudas que puedan suscitarse acerca de un límite jurisdiccional no siendo posible resolver en los mentados expedientes cosas distintas. Para el Tribunal Supremo el deslinde consiste en determinar a cuál de dos o más Ayuntamientos pertenece un territorio que «ninguno de ellos posee quieta y pacíficamente en virtud de otro acto administrativo firme y consentido».

Asimismo, la jurisprudencia constante ha venido reconociendo que los deslindes consignados en un documento público no pueden modificarse por un nuevo deslinde y que no pueden suscitarse cuestiones sobre límites jurisdiccionales de municipios limítrofes cuando aquellos han sido fijados y reconocidos de común acuerdo entre los representantes de los municipios interesados.

Considerando que la doctrina del Consejo de Estado es coincidente con la del Tribunal Supremo, en la que se basa. Así, entre otros muchos otros, el dictamen número 2179, de 6 de noviembre de 1946. Dice el Dictamen:

«Es doctrina constantemente mantenida, entre otras resoluciones, por el Real Decreto-sentencia de 5 de agosto de 1881 y Real Orden de 4 de enero de 1906, que «los deslindes de términos municipales consignados en documentos públicos son subsistentes y deben respetarse mientras su alteración no se justifique con otros documentos posteriores de igual valor o por los medios legales que el Derecho reconoce»; como también es doctrina constante la de que los citados deslindes «crean estados definitivos de derecho si son confirmados y no se apelan en tiempo y forma».

Considerando que, como se ha señalado para la revisión de un deslinde anterior consentido y firme, sólo cabe invocar el supuesto que el artículo 7 de la Norma Foral 8/1983 califica de excepcional, el que se acredite (documentalmente según el Tribunal Supremo) la existencia de errores materiales o vicios de procedimiento en la delimitación anterior.

Considerando que el Tribunal Supremo en sentencia, entre otras, de 11 de octubre de 2006 ha recalcado «(..) que el error material no existe cuando su apreciación implica un juicio de valor, o cuando su rectificación aparente representa realmente una alteración fundamental del contenido del acto que se pretende rectificar».

Asimismo, la sentencia del Tribunal Superior de Justicia de Galicia de 1 de diciembre de 1999 «(..) Cuando los Ayuntamientos interesados estén conformes con los límites existentes en la actuali-

zein izanik ere, ez da bidezkoa berriro ezartzea, salbuespenak salbuespen, aurreko mugaketan agiri bidez oker materialak edo prozedurako akatsak egon direla frogatuta.

(...) eztabaida eta azken batean jurisdikzioko aurkarapena arazo berberaren inguruan hain zuzen ireki nahi izate hori, eta irekieraren "arrazoizko bidezko frogatzea" izat jo daitekeen inguruabar berririk ageri ez delarik, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 106. artikuluan jasotako aurreikuspen edo xedapen aurkakoa da edonola ere, eta aurrekoarekin estu-estu lotuta, kontuan hartzekoa da berraztertzeok aukera hartan aparteko salbuespen gisa eta oker material edo prozedurako akats moduan adierazitako arazoiek bultzatuta lege zehaztuta dagoela argi eta garbi (...)

Kontuan hartuta Busturiko Udalak, lehorreko kanpoko mugan dauden zedarriak direla eta, argudiatu duen itsasertzei buruzko lege-riarekin bat datorren mugaketaren eskakizunari dagokionez, Konstituzioaren 137. artikulua haxe dioela: «Lurraldeari dagokionez, estatua, udalerrri, probintzia eta sortzeko diren autonomia-erkidegoetan antolatzen da»; bestetik, Toki Araubideari buruzko Legearen 1.1. artikulua xedatzen du «udalerrriak, estatuen lurralde-antolamenduaren oinarritzko erakundeak dira... eta nork bere kolektibitateen berezko interesak kudeatzen dituzte autonomia osoz», horren 12. artikulua gehitzen duelarik «udal mugartea, udalaren eskumenen jardute-lurraldea da».

Kontuan hartuta Konstituzioak berak xedatzen duela jabari publiko-ko ondasunak direla legeak zehazten dituenak eta, nolatan ere, honako hauek: itsaso eta lehorren arteko aldea, hondartzak, lurralde-itsasoa eta ekonomi aldeko eta zapaldea kontinentaleko natur baliabideak.

Kontuan hartuta epai askoren jurisprudentziak, besteak beste, 1980ko martxoaren 17koak eta 1984ko irailaren 20koak, adierazi izan duela «itsas eta lehorren arteko aldea honako hauek osatzen dutela: itsasoak, mareak ageri direnean, bere fluxuan eta errefluxuan bere menpean hartzen dituen eta, marearik ageri ez denean, denborale arruntetako olaturik handienek beren menpean hartzen dituzten espainiar lurraldeko itsasertzeak edo itsas mugak zehaztutako guneeak» eta itsasertz horien muga-mugako lurralde-itsasoaren osagaiak dira «itsaso horren ur-zutabea, oharntzea, zorupea eta baliabideak, baita gaineko aire-guneeak ere»... «ez dago udal mugarteen eta jabari publikoko lurren arteko banaketarik», «Itsaso eta lehorren arteko aldea udalen aginpide-eremuaren barruan dagoela, nahiz eta berezi beharra dagoen jabari bidezko eskumena eta udalerrriak, bere organismo pribatiboen bidezko berezko eskumenaren bidez jarduten duen jurisdikzioa, bestela jabetza, batetik, eta jurisdikzioa, bestetik, kontzeptuak parekatzearen nahas-mahas horretan eroriko litzateke eta», «lurralde nazionala ez dela banatzen udal mugartetan, batetik, eta jabari publikoko lurralde edo ondasunetan, bestetik, baizik eta soil-soilik udal mugartetan»; eta hortaz amaitzeko laburbildu behar da itsaso eta lehorren arteko aldea, estatuen jabari publikoko ondasuna izan arren, udal mugarte baten osagaia dela, ez ordea lurralde-itsasoa, hori ere estatuen jabari publikoko ondasuna da eta.

Kontuan hartuta Busturiko Udalak ez duela 1976ko maiatzaren 11an jasotako aktan egindako mugarriketan oker materialik edo prozedurako akatsik egiaztatuta, hartan Busturia eta Sukarrieta udal-erakundeak ordezkari guztien sinadurak ageri direlarik, korporazio bakoitzaren zigilua eta guzti.

Kontuan hartuta 1976ko maiatzaren 11ko aktaren 8. orrian adierazten dela 1949ko apirilaren 5eko mugarriketaren akta deuseztaturik geratzen dela, aginduzkoa den akta gehigarri egokia jaso zelarik, eta ondorioz hura batere balio juridikorik gabe geratu zela.

Kontuan hartuta 1976ko maiatzaren 11ko eta 2002ko apirilaren 22ko aktak sinatzea, aldeentzako beren beregiko egintza dela, denek errespetatu behar dutena, Goi-Auzitegiaren doktrina tradizionalari jarraituta, aipatutako 1976ko maiatzaren 11ko aktan oker materialik edo prozedurako akatsik egiaztatuta ez delako.

dad, cualquiera que sea la fecha de las actas en que hubieran quedado establecidos, no procederá nueva fijación, salvo casos excepcionales, en que documentalmente se justifiquen errores materiales o vicios de procedimiento en la delimitación anterior.

(...) la pretensión de reabrir el debate y en definitiva la impugnación jurisdiccional exactamente sobre la misma cuestión sin aparición de nuevas circunstancias que pudieran entenderse como "razonablemente justificativas" de tal reapertura, se presenta como contraria a las previsiones contenidas en el artículo 106 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en todo caso, y en inmediata conexión con lo anterior es de considerar que la posibilidad revisora viene claramente configurada en el mismo con un carácter excepcional y por unos motivos tasados de vicios procedimentales o errores materiales(...).

Considerando por lo que respecta a la exigencia de un deslinde de conformidad con la legislación de Costas aducido por el Ayuntamiento de Busturia con respecto a los mojones situados en el límite exterior terrestre, que la Constitución indica en su artículo 137 que «El Estado se organiza territorialmente en municipios, provincias y en las Comunidades Autónomas que se constituyan»; el artículo 1.1 de la Ley de Régimen Local dispone «que los municipios son entidades básicas de la organización territorial del Estado... y gestionan con autonomía los intereses propios de las correspondientes colectividades», añadiendo en el artículo 12 que «el término municipal es el territorio en que el Ayuntamiento ejerce sus competencias».

Considerando que la propia Constitución establece que son bienes de dominio público estatal los que determina la ley y, en todo caso, la zona marítimo terrestre, las playas, el mar territorial y los recursos naturales de la zona económica y la plataforma continental.

Considerando que la jurisprudencia en numerosas sentencias, entre las que se encuentran las de 17 de marzo de 1980 y 20 de septiembre de 1984, ha señalado que «la zona marítimo terrestre está constituida por el espacio de las costas o fronteras marítimas del territorio español que baña el mar en su flujo y reflujo, en donde sean sensibles las mareas, y las mayores olas en los temporales ordinarios, en donde no lo sean» y el mar territorial adyacente a sus costas está constituido por «la columna de agua, el lecho, el subsuelo y los recursos de ese mar, así como el espacio aéreo suprayacente»... «no existe división entre términos municipales y terrenos de dominio público, que la zona marítimo-terrestre se encuentra dentro de la esfera de atribuciones de los Ayuntamientos, aunque haya de distinguirse entre competencia por razón del dominio y la jurisdicción que el Municipio ejerce a través de la competencia propia de sus Órganos privativos, en el ámbito especial que enmarca el término municipal, pues, de lo contrario, se incurriría en el confusiónismo de equiparar los conceptos de propiedad por un lado y jurisdicción por otro», que «el territorio nacional no se distribuye en términos municipales de una parte, y de otra, territorios o bienes de dominio público, sino sólo en términos municipales»; por tanto hay que terminar resumiendo que la zona marítimo-terrestre, aunque sea un bien de dominio público estatal, forma parte de un término municipal, no así el mar territorial, que también es bien de dominio público estatal.

Considerando que el Ayuntamiento de Busturia no acredita ni errores materiales ni vicios del procedimiento del deslinde practicado en el Acta recogida el 11 de mayo de 1976, en el que constan las firmas de todos los representantes de los Ayuntamientos de Busturia y Sukarrieta y sellada con los sellos de las respectivas Corporaciones.

Considerando que en el folio 8 del Acta de 11 de mayo de 1976 se señala que el Acta de deslinde de 5 de abril de 1949 queda anulada con el preceptivo levantamiento de la correspondiente Acta adicional, quedando en consecuencia sin valor jurídico alguno.

Considerando que la firma de las Actas de 11 de mayo de 1976 y 22 de abril de 2002, suponen actos propios para las partes, que han de ser respetados por todos, siguiendo la doctrina tradicional del Alto Tribunal, al no haber sido acreditados errores materiales ni vicios de procedimiento en la reiterada Acta de 11 de mayo de 1976.

Indarreko legeria ikusita eta Hirigintza eta Udal Harreman Sailaren Araudi Organikoa onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren markoaren 9ko 32/2004 Foru Dekretuaren 1.2.1.3. artikulua bidez eman zitzaizkidan eskurantzak direla bide, hauxe

EBATZI DUT:

Lehena: Sukarrieta eta Busturiko udalek 1976ko maiatzaren 11n sinatutako mugaketari buruzko akta baliogarritzat eman eta indarrean dagola adieraztea.

Bigarrena: Busturiko Udalak, Busturia eta Sukarrieta arteko muga-lerroko 12 eta 13. zk. etako zedarrien bilaketa eta ezabaketaren legezkotasuna aztertzeke mugaketari buruzko espedientearen tramitazioa ukatzea.

Hirugarrena: Foru agindu honen berri ematea gaia dagokien udalei.

Ebazpen hau behin betikoa da, eta administrazio bidea agortzen du. Hala ere, hurrengo errekurtsioak jarri ahal izango zaizkio Ukitutako herri administrazioak: Bilboko administrazioarekiko auzietarako epaitegian zuzenean, jakinarazpena jaso eta biharamunaz geroko 2 hileko epean.

Hala ere, bidezkotzat jotzen den bestelako edozein errekurtsio ere jarri ahal izango da, indarreko legeriarekin bat etorriz.

Hori guztia hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz: Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauari 69. artikuluan, apirilaren 15eko 3/1999 Foru Arauak emandako idazkeran; Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 109. eta 116. artikuluetan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran; eta abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak aldarazi zuen administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8-1 a), 44 eta 46-1 artikuluetan.

Bilbon, 2007ko ekainaren 15ean.

Hirigintza eta Udal Harremanen foru diputatua
JUAN FRANCISCO SIERRA-SESUMAGA IBARRETXE

(I-1214)

Vista la legislación vigente y en virtud de las facultades conferidas por el artículo 1.2.1.3 del Decreto Foral 32/2004, de 9 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Relaciones Municipales y Urbanismo,

RESUELVO:

Primero: Considerar válida y vigente el Acta de Deslinde firmada por los representantes de los Ayuntamientos de Sukarrieta y Busturia el 11 de mayo de 1976.

Segundo: Denegar la tramitación del expediente de deslinde para el examen de la legalidad de la localización y supresión de los mojones números 12 y 13 en la línea de término entre Busturia y Sukarrieta, iniciado por el Ayuntamiento de Busturia.

Tercero: Dar traslado de la presente Orden Foral a los Ayuntamientos interesados.

La presente resolución, que es definitiva, pone fin a la vía administrativa y podrá ser recurrida, por la Administración Pública interesada, directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao en el plazo de 2 meses contados desde el día siguiente a la notificación.

Sin perjuicio de que puedan ejercitar cualquier otro recurso que estimen pertinente de acuerdo con la legislación vigente.

Todo ello de conformidad con lo que disponen el artículo 69 de la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, en la redacción dada por la Norma Foral 3/1999, de 15 de abril; los artículos 109 y 116 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, con la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, y los artículos 8.1, 44 y 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, reformada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre.

En Bilbao, a 15 de junio de 2007

El diputado foral de Relaciones Municipales y Urbanismo
JUAN FRANCISCO SIERRA-SESUMAGA IBARRETXE

(I-1214)

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

Bilboko Udala

EDIKTUA

Udalaren isunak Bilboko uriko espazio publikoan kaleko edana galarazteko udal jarduera arautzen duen udal ordenantzaren arauak hausteagatik

Esp.: 064033000002.

Jakinarazpena.—Zenbait arrazoi direla-eta, Lidia Basante C6 andreari Bilboko uriko espazio publikoan kaleko edana galarazteko udal jarduera arautzen duen udal ordenantzaren arauak hausteagatik jarritako isuna ezin izan zaio beren beregi jakinarazi. Hori dela-eta, iragarki hau argitaratzen da iragarki-taulan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan («EAO» 92-11-27) eta horrekin bat datozen gainontzeko arauetan xedatutakoaren arabera.

Ebazpenaren edukia ondokoa da:

«1. Hiritarren Segurtasuneko Sailaren proposamenez, 200 euroko isuna jartzea, Lidia Basante Castiñeira andreari, arau-haus-

Ayuntamiento de Bilbao

EDICTO

Sanciones municipales por infracciones a la ordenanza reguladora de la práctica del botellón en el espacio público de la villa de Bilbao

Expediente 064033000002.

Notificación.—Habiéndose intentado la notificación de forma expresa de la sanción dictada por infracción a la Ordenanza Reguladora de la Práctica del Botellón en el Espacio Público de la Villa de Bilbao a doña Lidia Basante Castiñeira y no habiéndose podido practicar por diversas causas, se hace público el presente anuncio en el Tablón de Edictos en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 59.4 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común («B.O.E.» 27-11-92) y demás disposiciones concordantes de pertinente aplicación.

El contenido de la resolución es el siguiente:

«1. Sancionar, a propuesta del Área de Seguridad Ciudadana, a doña Lidia Basante Castiñeira, responsable de la infracción, con

tearen erantzule izategatik, hain zuzen, 2006ko azaroaren 4an, 20:17an, Iturribide kaleko 49an ostalaritzako lokaletakoak ez ziren edariak edaten egoteagatik beste lagun batzuekin batera.

Azaldutako ekintza sailkatuta dago Bilboko uriko espazio publikoan kaleko edana galarazteko udal jarduera arautzen duen udal ordenantzaren 2.2 artikuluan («EAO», 06-10-10).

2. Jakinarazpen hau Ekonomia eta Ogasun Saileko Obren-gatiko Zerga, Tasa eta Prezio Publikoen Sekzioan aurkeztuta (Venezuela pl. 2, beheko solairua) ordain daiteke isuna.

Isuna ordaindu ezean, premiamenduzko administrazio-bide-tik joko da.

3. Erabaki adierazi honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko epaitegietatik egokia den hartan edo eskari-egilearen helbideari dagokionean, interesdunaren aukeran. Hori horrela da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 e) eta 14. artikuluetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen azaroaren 26ko 4/1999 Legearen 109 c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

Hala ere, eta aukeran, aurreko lerroaldian aipatuta Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsua jarri aurretik, jakinarazi zaizun ebazpen adieraziaren aurka berraztertze errekurtsua aurkez diezaiokezu erabakia hartu duen organoari, hilabete epean jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsuaren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa da. Epe hori igarota ez bada ebazpen adierazirik ematen, ezetsi dela ulertuko da, halaxe ezartzen baitute tokiko gobernuaren modernizatzeko neurri buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeko 108. artikulua eta 30/1992 Legea aldatzeko 4/1999 Legearen 43.2 artikulua.

Hala ere, zure eskubideak defendatzeko egoki deritzozun beste edozein ekintza edo errekurtsu jarri ahal izango duzu.

4. Honen berri ematea Ekonomia eta Ogasun Sailari, bidezko ondorioak izan ditzan».

Hala ere, zuri dagokizu egokiena eta zuzenena ebaztea.

Txosten juridikoa

Esp.: 064033000002.

4. Orozkoko Udalak antolatzen dituen kirol ikastaro guztietan izena eman eta matrikulatzeko eskubidea, plaza libreak baldin badaude, harpidetu gabekoekiko lehentasuna dutelarik eta aurrez dagokion tasa ordainduta.

5. Kirol barrutiaren barruan edo kanpoan kirolen bat egiteko, instalazioetako aldagelak, komunak, dutxak, arropazaindegia eta abar erabiltzeko eskubidea.

6. Udal kirol-instalazioak osatzen dituzten zerbitzu guztiak berriazko araudiaren arabera erabiltzeko eskubidea.

7. Zerbitzu araudi honen ale bat dohainik jasotzeko eskubidea.

20. artikulua.—Erantzukizun Zibileko Aseguruaren estaldura

Afiliazioa aldeaz aurretik Kirol Mutualitate Nagusiari edo beste kirol aseguru bati jakinarazita taldeentzat antolatzen diren jarduerak kenduta, gainerakoek instalazioen gerta litezkeen istripuetarako estaldura izango dute Udalak kirol-instalazioetarako izenpetua duen Erantzukizun Zibileko Aseguruaren bitartez, hori eragozpen izan gabe Udalak izenpetutako kontratuak arautzeko pleguetan ezarritakoa betetzeko.

21. artikulua.—Harpidetutako erabiltzaileen sailkapena

1. Harpidetutako erabiltzaileak sailkatzeko maila hauek daude:

- Banakako abonua Orozkon erroldatuta dauden 0-4 urtera bitarteko erabiltzaileentzat.
- Banakako abonua Orozkon erroldatuta ez dauden 0-4 urtera bitarteko erabiltzaileentzat.
- Banakako abonua Orozkon erroldatuta dauden 5-13 urtera bitarteko erabiltzaileentzat.
- Banakako abonua Orozkon erroldatuta ez dauden 5-13 urtera bitarteko erabiltzaileentzat.
- Banakako abonua Orozkon erroldatuta dauden 14-17 urtera bitarteko erabiltzaileentzat.
- Banakako abonua Orozkon erroldatuta ez dauden 14-17 urtera bitarteko erabiltzaileentzat.
- Banakako abonua Orozkon erroldatuta dauden 18-64 urtera bitarteko erabiltzaileentzat.
- Banakako abonua Orozkon erroldatuta ez dauden 18-64 urtera bitarteko erabiltzaileentzat.
- Banakako abonua Orozkon erroldatuta dauden 65 urtetik gorako erabiltzaileentzat.

2. Aurretik adierazitako harpidedun-mota bakoitzaren barruan, era berean, honakoak bereizi ahal izango dira:

- Urteko harpidetuak.
- Urteko azken hiru hilabeteko harpidetuak.

3. Mota bakoitzerako tarifak Orozkoko Udalak onartuko ditu, aplikatu beharreko arautegian ezarritako prozedurari jarraiki, eta indarrean izango dira harik eta tarifa horiek aldatu edo indargabetzen diren arte.

4. Sailkapenen ondorioetarako, adinaren erreferentzia gisa urte bakoitzaren urtarilaren 1ean interesdunak duen adina hartuko da, urteak noiz betetzen dituen kontuan hartu gabe.

5. Harpidedun-txartela pertsonala eta besterenezina da; titularrak soilik erabili ahal izango du, horri emango baitio barrutira sartzeko ahalmena.

Hori egiaztatzeko, kontrol eta zaintzarako langileek NAN edo antzeko agiri bat aurkezteko eskatu ahal izango dute.

6. Altan ematen diren urteko harpidedunek urteko kuota ordainduko dute, sarrera-eskaera egiten duten eguna edozein dela ere.

7. Administrazio bulegoak Udal kirol-instalazioen bulegoak finkaturik diren tokian erantzungo die harpidedunek ordainagiri, txartel, denboraldi baterako abonua eta abarri buruz egiten dituzten galderi, lanegun guztietan.

4. A la inscripción y matriculación en todos los Cursos Deportivos que se organicen por el Ayuntamiento de Orozko siempre que existan plazas libres, con prioridad sobre los usuarios no abonados y previo abono de la correspondiente tasa.

5. A utilizar los vestuarios, servicios, duchas, guardarropía, etc., de las instalaciones, con motivo de la práctica de algún deporte fuera o dentro el recinto deportivo.

6. La utilización, de acuerdo a cada reglamento en particular, de todos los servicios que integren las Instalaciones Deportivas Municipales.

7. A obtener gratuitamente un ejemplar del presente Reglamento de Servicios.

Artículo 20.—Cobertura del Seguro de Responsabilidad Civil

Excepto aquellas actividades organizadas para grupos en las que se comunique previamente la afiliación a la Mutualidad General Deportiva u otro Seguro Deportivo, el resto tendrá la cobertura para posibles accidentes de la Instalación con el Seguro de Responsabilidad Civil que el Ayuntamiento tiene suscrito para las instalaciones deportivas, sin perjuicio de lo establecido en los pliegos que rijan en los contratos suscritos por éste.

Artículo 21.—Clasificación de los usuarios abonados

1. Se dividen los usuarios abonados en las siguientes clases:

- Abono individual para usuarios de 0 a 4 años empadronados en Orozko.
- Abono individual para usuarios de 0 a 4 años no empadronados en Orozko.
- Abono individual para usuarios de 5 a 13 años empadronados en Orozko.
- Abono individual para usuarios de 5 a 13 años no empadronados en Orozko.
- Abono individual para usuarios de 14 a 17 años empadronados en Orozko.
- Abono individual para usuarios de 14 a 17 años no empadronados en Orozko.
- Abono individual para usuarios de 18 a 64 años empadronados en Orozko.
- Abono individual para usuarios de 18 a 64 años no empadronados en Orozko.
- Abono individual para usuarios mayores de 65 años empadronados en Orozko.

2. Dentro de cada una de las clases de abonados anteriormente señaladas podrán ser a su vez:

- Abonados anuales.
- Abonados último trimestre del año.

3. Las tarifas para cada una de las clases serán aprobadas por el Ayuntamiento de Orozko conforme al procedimiento establecido por la normativa aplicable, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación.

4. A los efectos de las clasificaciones, se tendrán como referencia de la edad, la del interesado al 1 de enero de cada año, con independencia de la fecha en la que efectivamente cumpla los años.

5. El carné de abonado es personal e intransferible y únicamente se podrá usar por el titular, al que facultará para acceder al recinto.

A tal efecto el personal de control y vigilancia podrá solicitar la presentación del DNI o documento similar.

6. Los abonados anuales que sean dados de alta satisfarán la cuota del año, independientemente del día que realicen la solicitud de entrada.

7. La Oficina del Polideportivo atenderá a los señores abonados en sus consultas sobre recibos, carnés, etc., todos los días laborables en el lugar donde estén fijadas las Oficinas de las Instalaciones Deportivas Municipales.

22. artikulua.—Harpidetutako erabiltzaileen betebeharrak

1. Harpidetutako erabiltzaileek betebeharrak bete beharko dituzte:

- Instalazioetako kontrol edota zaintzako langileek eskatzean edozein unetan harpidedun-txartela eta horrekin batera NAN, pasaporte edo antzeko agiria erakusteko betebeharra.
- Araudi honen 52 artikuluan adierazitako dokumentazioa emateko betebeharra.
- Instalazioak eta zerbitzuak behar bezala erabiltzea eta egoki zaintzea.
- Gainerako harpidedun edo erabiltzaileekin behar den begiramaña izatea, elkarbizitza onerako beharrezkoa den jarraz.
- Ezarritako kuotak garaiz ordaintzea, baita aldez aurretik onartutako ordu-erreserba ere.
- Orozkoko Udalak berak edo instalazioetako langileen bitartez ematen dituen arau eta jarraibide guztiak onartu eta betezea.

2. Txartela galdu, lapurtu edo hondatzen bada eta berria egin behar bada, beste bat egiteko eskatu ahal izango da, eta horretarako txartel-neurriko beste argazki bat eman eta horretarako ezarritako tasa ordaindu beharko da.

Txartela lapurtu edo galdu egin bada, berehala eman beharko da horren berri Administrazioan, jakinaren gainean egon daitezen.

3. Udal kirol-instalazioetan baja eman nahi duen harpidedunak kirol-instalazioetako administrazio bulegoetan jakinarazi beharko du.

a) Urteko harpidedunek kuota ordaindu ondoren baja eman nahi badute, kuota itzulita izateko eskubidea izango dute baldin eta abonua eraginkorra den lehenengo hilabetea amaitu baino lehen eskatzen badute eta denboraldi horretan harpidedun-txartela ez dutela erabili egiaztatzen badute.

Epe hori igarota, ez da dirurik itzuliko.

b) Sei hilabeteko harpidedunek kuota ordaindu ondoren baja eman nahi badute, kuota itzulita izateko eskubidea izango dute baldin eta abonua eraginkorra den lehenengo hamabostaldia amaitu baino lehen eskatzen badute eta denboraldi horretan harpidedun-txartela ez dutela erabili egiaztatzen badute. Epe hori igarota, ez zaie dirurik itzuliko.

4. Kuotak ez ordaintzeagatik baja eman zaion harpidedunak berriz ere harpidedun egin nahi badu, ordaindu gabeko kuota guztiak ordaindu beharko ditu baja ematen zaionetik berriz inskribatzen den arte.

5. Itzulitako ordainagiriak, ordaintzen ez dituenari aldez aurretik jakinarazita, eta ordaintzen ez baditu harpidedun gisa automatikoki baja emango zaio.

6. Orozkoko Udalak instalazioen behin-behineko erabilerrak hainbat kuota ezarriko ditu. Sarrera ordainduta, bai haurrek bai helduek. Erabiltzaileak igerilekuak, aldagelak, duxak eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izango ditu ezarritako arauak bete, harpidedun bat izango balitz bezala. Erreserba daitezkeen zerbitzuak erabili ahal izango dira libre baldin badira eta indarrean den erreserba ordainduta badago.

7. Orozkoko Udalak erabiltzaileei berak programatutako edozein jarduerari ekin aurretik mediku-azterketa egitea gomendatzen die, eta komenigarritzat jotzen badu hori eskatzeko eskubidea bere egiten du.

III. KAPITULUA

HARPIDETU GABEKO ERABILTZAILEAK

23. artikulua.—Harpidetu gabeko erabiltzailearen kontzeptua

Harpidetu gabeko erabiltzailea instalaziora harpidedun izan gabe ezarritako tasa ordainduta sartzen den erabiltzailea da.

Harpidetu gabeko erabiltzaileek eskubidea izango dute edozein kirol-instalazio horiek jendearentzat irekita dauden ordutegi eta egunetan erabiltzeko, aurretik Orozkoko Udalak ezarritako prezioa ordainduta.

Artículo 22.—Obligaciones de los usuarios abonados

1. Los usuarios abonados deberán cumplir las siguientes obligaciones:

- Exhibir el carné de abonado junto al D.N.I., pasaporte o documento similar, en cualquier momento a requerimiento de personal de control y/o vigilancia de las instalaciones.
- Facilitar la documentación que se indica en el artículo 52 del presente reglamento.
- Usar las Instalaciones y Servicios con un buen trato y cuidado correcto.
- Guardar el debido respeto a los demás abonado/as o usuario/as, observando la compostura necesaria para la buena convivencia.
- Satisfacer puntualmente las cuotas establecidas así como la reserva de horarios, previamente concedida.
- Acatar y cumplir cuantas normas e instrucciones dicte la el Ayuntamiento de Orozko por sí o a través del personal de las Instalaciones.

2. La pérdida, extravío, robo o deterioro del carné que dé lugar a la reposición del mismo facultará para solicitar la confección de un duplicado y llevará consigo el pago de la tasa establecida al efecto.

En el caso de robo o pérdida del carné, deberá dar cuenta inmediatamente, en Administración para su conocimiento.

3. El abonado que desee causar baja en las Instalaciones Deportivas Municipales deberá comunicarlo en las oficinas administrativas de las mismas.

a) Los abonados anuales que deseen causar baja después de haber atendido el pago de la cuota tendrán derecho a la devolución de la misma siempre y cuando lo soliciten antes de finalizar el primer mes de efectividad del abono y acrediten no haber hecho uso del carné de abonado en dicha temporada.

Pasado dicho plazo no se devolverá cantidad alguna.

b) Los abonados semestrales que deseen causar baja después de haber atendido el pago de la cuota tendrán derecho a la devolución de la misma siempre y cuando lo soliciten antes de finalizar los quince primeros días de efectividad del abono y acrediten no haber hecho uso del carné de abonado en dicha temporada. Pasado dicho plazo no se devolverá cantidad alguna.

4. El abonado que fuese dado de baja por impago de cuotas y en otra ocasión desee volver a ser abonado, deberá pagar todas las cuotas impagadas desde que se le dé baja hasta la fecha en la que se le inscriba de nuevo.

5. Los recibos devueltos, previo aviso al abonado que no los atiende, y no fuesen pagados se causará su baja automática como tal.

6. El Ayuntamiento de Orozko establecerá unas cuotas por la utilización accidental de las Instalaciones. Mediante el pago de una entrada que fijará la misma, tanto para adultos como para niños. El usuario podrá hacer uso de piscinas, vestuarios, duchas y demás servicios acatando las normas establecidas, como si de un abonado se tratara. Los servicios que sean objeto de reserva se podrán utilizar siempre que estén libres y pagada la reserva que esté vigente.

7. El Ayuntamiento de Orozko recomienda a los usuarios someterse a un reconocimiento médico previo antes de iniciar cualquier actividad programada por éste, reservándose el derecho de eximirlo si lo estimase conveniente.

CAPÍTULO III

DE LOS USUARIOS NO ABONADOS

Artículo 23.—Concepto de usuario no abonado

Usuario no abonado es toda persona física que acceda a la instalación sin ser abonado, previo pago de la tasa establecida.

Los usuarios no abonados tendrán derecho a la utilización de cualquiera de las instalaciones deportivas dentro de los horarios y en los días en los que las mismas se encuentren abiertas al público, previo pago del precio establecido por el Ayuntamiento de Orozko para acceder a la práctica del deporte deseado.

Instalazioez gozatzeko ezarritako prezioa ezberdina izan ahalgo da jarduera egiten den instalazioaren arabera.

Prezioa ordaindu izanaren egiaztagiri gisa ticket edo agiri bat emango zaio eskatutako joko-pistara heldu ahal izateko. Agiri hori erakusteko eskatu ahal izango dute instalazioetako langileek edozein unetan.

24. artikulua.—Harpidetu gabeko erabiltzaileen sailkapena

a) Harpidetu gabeko erabiltzaileen artean honako maila hauek bereizten dira:

— 4 urte bete ez dituztenak (haurrak).

— 5-15 urtera bitarteko urteak beteta dituztenak.

— 16 urte bete dituztenak (helduak).

b) Langile arduradunek erabiltzailearen adina egiaztatzeke NAN edo antzeko agiria eskatzeko eskubidea izango dute.

c) Erabiltzaileek aldeztu aurretik ordaindu beharko dute erabili behar duten instalazioa erabiltzeko ezarritako zenbatekoa. Gero beste edozein instalazio erabili ahal izateko nahitaez dagokion beste prezioa ordaindu beharra ekarriko du.

IV. KAPITULUA ESKOLA KIROLA

25. artikulua.—Ikastetxeek kirol-instalazioak erabiltzea

Orozkoko Udalaren kirol-instalazio eta ekipamenduek beren egituraren zati handi bat udalerriko ikastetxeetan dagoen kirol egitura eskasia arintzera bideratuko dute.

Eskolako ordutegian kirol-instalazioak batik bat Orozkoko ikastetxeetako heziketa fisikoko eta eskola-igeriketako klaseak ematera bideratuko dira.

Hori dela eta, Orozkon dagoan ikastetxeak kirol-instalazioak erabili ahal izango dituzte ikastetxe bakoitzak horretarako Orozkoko Udalarekin banaka izenpetutako hitzarmeneko baldintzak betetz, betiere eskolako ordutegiaren barruan erabiltzen badituzte, ikastetxeak emandako berariazko baimenarekin eta irakasle batez lagundurik, irakaslea izango baita bertaratutakoen heziketa fisikoaren eta jarreraren arduradun.

26. artikulua.—Instalazioak lagatzeko irizpideak eta baldintzak

Instalazioak ikastetxeei lagatzeko irizpideak eta baldintzak urtero finkatuko dira, irailean, Orozkoko Udalaren interesak eta ikastetxearenak kontuan hartuta.

Horretarako, kirol norgehiagoken hasieran behar den aurrepenaz, eta klub, kirol elkarte eta federazioetarako ezarritako epearen barruan, kirola egiteko ordutegi eta egunak erreserbatzeko eskubidea egingo du ikastetxeko zuzendaritzak; horretarako, akordio bat izenpetu eta Orozkoko Udalarekiko hitzarmen batean jasoko da. Hitzarmenak urtebeteko indarraldia izango du, baina luzatu ahal izango da.

Eskolako ordutegitik kanpoko eskola kirolerako ere Orozkoko Udalak instalazioak lagako dizkio, eta erabilera-baldintzak urtero ezarriko dira, eskola-kirolaren kanpaina hasi baino lehen.

27. artikulua.—Eskola-igeriketa sustatzeko kanpainak

Eskola-igeriketa sustatzeko kanpainei dagokienez, begiralea Orozkoko Udalak jarri ahal izango du Udalak aurrez onesten dituen diru-zenbatekoak ordaindu eta dagokion hitzarmenean islatuta. Baina taldeak instalazioetan duen jarreraren erantzukizuna taldearekin batera etortzen den irakaslearena izango da.

El precio establecido para el disfrute de las instalaciones podrá ser diferente en función de la instalación en la que se desarrolle la actividad.

Como justificante del abono del precio le será entregado un ticket o documento que le faculte para acceder a la pista de juego solicitada, cuya exhibición podrá ser requerida por el personal de las instalaciones en cualquier momento.

Artículo 24.—Clasificación de los usuarios no abonados

a) Se distinguen las siguientes categorías de usuarios no abonados:

— Quienes no hayan cumplido los 4 años.

— Quienes se encuentren con edades comprendidas entre los 5 y 15 años.

— Quienes hayan cumplido 16 años (adultos).

b) El personal responsable tendrá derecho a pedir el DNI o documento similar para comprobación de edad del usuario.

c) Los usuarios deberán abonar de forma anticipada la cantidad estipulada para la utilización de la instalación cuya utilización vayan a efectuar. El uso posterior de cualquier otra instalación supondrá obligatoriamente el abono del correspondiente nuevo precio.

CAPÍTULO IV DEL DEPORTE ESCOLAR

Artículo 25.—Acceso de los centros escolares a las Instalaciones Deportivas

Las instalaciones y equipamientos deportivos del Ayuntamiento de Orozko dedicarán una gran parte de su estructura a paliar la falta de la misma en los centros escolares del municipio.

Durante el horario escolar las instalaciones deportivas estarán principalmente dedicadas a acoger tanto las clases de educación física, la natación escolar y la actividad recreativa del colegio de Orozko.

Por dicho motivo el Colegio existente en Orozko podrá acceder a las instalaciones deportivas de acuerdo a las condiciones del convenio suscrito de forma individualizada con el Ayuntamiento de Orozko a tal efecto, y siempre que lo haga durante el horario lectivo, autorizado expresamente por el Colegio y acompañados de profesores y cuidadores, que serán responsables tanto de la educación física como del comportamiento de los asistentes.

Artículo 26.—Criterios y condiciones de cesión de las instalaciones

Los criterios y condiciones de cesión de las instalaciones a los centros escolares se fijarán cada año en el mes de Septiembre teniendo en cuenta los intereses del Ayuntamiento de Orozko y de los colegios.

Para ello, con la antelación necesaria al inicio de las competiciones deportivas, y en el plazo establecido para los clubes, asociaciones deportivas y federaciones, se formulará la solicitud de reservas de horario y días para la práctica de deportes, por la dirección del Centro Escolar, suscribiéndose un acuerdo que se reflejará en un Convenio con el Ayuntamiento de Orozko que poseerá una vigencia anual sin perjuicio de las posibles prórrogas a que dé lugar.

El deporte escolar fuera del horario lectivo también contará con la cesión de las instalaciones por parte del Ayuntamiento de Orozko en unas condiciones de uso que cada año se establecerá antes del comienzo de la campaña de deporte escolar.

Artículo 27.—Campañas de promoción de natación escolar

En los casos de campañas de promoción de natación escolar, el monitor podrá ser facilitado por el Ayuntamiento de Orozko previo abono de las cantidades que se aprueben por parte del mismo y se reflejen en el correspondiente Convenio, pero la responsabilidad del comportamiento del grupo en la instalación recaerá siempre sobre el profesor con que el grupo venga acompañado.

V. KAPITULUA

KIROI KLUB, ELKARTE ETA FEDERAZIOAK

28. artikulua.—Kirol klub edo elkarteetan sartzea

Pertsona fisikoak kirol klub edo elkarte eta federazioetan sartu ahal izango dira. Klub, elkarte eta federazio horiek, legearen arabera eratuak, txapelketa-kirolariaren baliozko ordezkari bakartzat joko dira, eta horrela udal kirol-instalazioak erabili ahal izango dituzte, kapitulu honetan ezartzen diren baldintzetan.

29. artikulua.—Kirol talde, elkarte eta federazioek instalazioak erabiltzea

1. Kirol elkarteek, klubek eta federazioek instalazioak erabili ahal izango dituzte entrenamenduak, txapelketak, topaketak, erakustaldiak etab. egiteko, gainerako erabiltzaileen kirol jardueren garapen arrunta oztopatzen ez duten ordutegietan.

Klub, elkarte edo federazio izaera izateko, horrek Euskal Herriko Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroan eta Orozkoko udalerriko Kluben Erregistroan izena emanda egon beharko du.

2. Orozkoko kirol elkarte eta klubek lehentasuna izango dute bere kideek egiten duten kirolari dagozkion udal instalazioen erabileran, dagozkien ekipamenduak dituztelarik, udalerrian egoitza ez duten elkarte eta klubek ez bezala.

3. Klubek eta federazioek instalazioak partida, entrenamendu, erakustaldi eta abarrerako lagatzeko eskaera idatzia aurkeztu beharko diote Orozkoko Udalari.

Kirol denboraldiko entrenamenduetarako eskaerak instalazioan bertan aurkeztu beharko dira, urte bakoitzeko abuztuaren 1etik irailaren 30era bitartean.

Orozkoko Udalak erreserbako ordutegiak zehaztuko ditu, guztien interesak bateratzen saiatuz. Betiere, lehentasuna izango dute egoitza Orozkon dutenak, kalterik egin gabe harpidetu eta harpidetu gabeek erabiltzeko ezarritako ordutegiei.

Instalazioa erabiltzeko baimena emanda, beharrezkoa izango da datu hauek ematea: klubaren izena, bere arduraduna, egingo den kirol jarduera, maila, aurreikusitako erabiltzaileen kopurua, eta, horretaz gain, kirolariaren zerrenda, horien izena, abizenak, jaiotza-data eta beren federazio-lizentziaren fotokopia; horiek guztia instalazioak erabiltzen hasi aurretik aurkeztu beharko dira.

4. Emakida horren iraupena denboraldi batekoa izango da: kirol denboralditzat joko da irailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era.

5. Emakidak Orozkoko Udalaren irizpide teknikoen arabera emango dira, aurkeztutako eskaerak ikusita; irizpideetako batzuk honakoak dira:

- Instalazioaren eragin-esparruarekin lotuta edo kokatuta egoitea.
- Talde iraunkorrak izatea, kirol asoziazionismoa errazteko modu gisa, talde informal, ezegonkor eta egitura-gabeei kontrajarrita.
- Klubeko taldeen kopuru eta kategoriari erreparatuko zaio, baita jarduera bakoitzeko partaide-kopuruari.
- Inguruaren eta Orozkoko udalaren interesetan laguntzea.
- Aurretik ezarritako betebeharrak betetzea (kuoten ordainketa, ordenari eustea, etab.).

6. Emakidatik aurrera, izen-emateko datuei dagokienez egindako aldaketa guztien berri Orozkoko Udalari eman beharko zaio. Asteburuetarako topaketen egutegiak dagokien federazioek egingo dituzte, eta Orozkoko Udalari igorriko dizkiote 5 eguneko aurrerapenaz. Orozkoko Udalak egutegi horiek aldatzeko eskubidea bere egiten du.

CAPÍTULO V

DE LOS CLUBS, ASOCIACIONES Y FEDERACIONES DEPORTIVAS

Artículo 28.—Integración en clubes o asociaciones deportivas

Las personas físicas podrán integrarse en clubes o asociaciones deportivas y federaciones que, legalmente constituidos, serán considerados como los únicos representantes válidos del deportista de competición y podrán así hacer uso de las instalaciones deportivas municipales, en las condiciones que en este capítulo se establecen.

Artículo 29.—Uso de las instalaciones por los clubes, asociaciones deportivas y federaciones

1. Los clubes, asociaciones deportivas y federaciones podrán hacer uso de las instalaciones para la celebración de entrenamientos, competiciones, encuentros, exhibiciones, etc., en horarios que no interrumpan el desarrollo normal de las actividades deportivas de los demás usuarios.

Para tener consideración de club, asociación o Federación, éste deberá de estar inscrito en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco y en el Registro de Clubes del municipio de Orozko.

2. Los clubes y asociaciones deportivas de Orozko tendrán preferencia en la utilización de las instalaciones municipales propias del deporte que practican sus asociados, con sus equipamientos correspondientes, respecto a los clubes y asociaciones que no tengan su sede en el municipio.

3. Los Clubes y Federaciones deberán solicitar por escrito al Ayuntamiento de Orozko la concesión de las instalaciones para partidos, entrenamientos, exhibiciones, etc.

La presentación de solicitudes para entrenamientos durante la temporada deportiva deberá realizarse en la propia instalación desde el día 1 de agosto al 30 de septiembre de cada año.

El Ayuntamiento de Orozko designará los horarios de reserva, procurando armonizar los intereses de todos ellos, siendo siempre preferentes los que tengan su sede en Orozko y sin perjuicios a los horarios establecidos para su utilización por abonados o no abonados.

Concedido el uso de la instalación será necesario facilitar el nombre del club, su responsable, la actividad deportiva a desarrollar, la categoría, el número de usuarios previstos, así como la relación de sus deportistas con nombre, apellidos, fecha de nacimiento y fotocopia de su correspondiente licencia federativa, todo ello antes del comienzo de la utilización de las instalaciones.

4. La duración de esta concesión será de una temporada: considerándose como temporada deportiva el periodo comprendido desde el 1 de septiembre al 30 de junio del año siguiente.

5. Las concesiones se otorgarán de acuerdo con los criterios técnicos del Ayuntamiento de Orozko a la vista de las solicitudes presentadas, siendo algunos de estos criterios:

- Que estén ubicados o relacionados con la zona de influencia de la instalación.
- Que sean grupos estables, como medio de favorecer el asociacionismo deportivo, frente a grupos informales, inestables y faltos de estructura.
- Se atenderá a la categoría y número de equipos del Club, así como el número de participantes en cada actividad.
- Que colaboren con los intereses de la zona y del Ayuntamiento de Orozko.
- Que cumplan las obligaciones previamente establecidas (pago de cuotas, observancia del orden, etc.).

6. A partir de la concesión, todos los cambios producidos en relación con los datos de la inscripción, deberán ser comunicados por escrito al Ayuntamiento de Orozko. Los calendarios de encuentros para fines de semana serán realizados por los clubes y las federaciones respectivas, y enviados al Ayuntamiento de Orozko y a la instalación deportiva con 5 días de antelación. El Ayuntamiento de Orozko se reserva el derecho de modificar estos calendarios.

7. Orozkoko klubetako partaide diren taldeek Udal kirol-instalazioetan egiten dituzten txapelketa ofizialak erabilera-tasatik salbuetsita daude, honako kasu hauetan izan ezik:

- Zerbait ipini behar denean edo aparteko prestaketa-lanak egin behar direnean.
- Kanpoko taldeak jokalekua erabilgarri ez izateagatik denean.

8. Entrenamenduetarako erabilerak emateko Orozkoko Udalak antolatu edo baimendutako ekintzen menpe egongo da, eta ez da erreklamazioa aurkezteko aukerarik izango inguruabar horregatik lehenago baimendutako entrenamenduen ordutegia aldatu behar denean. Nolanahi ere, hori hamar eguneko aurrerapenaz jakinaraziko da.

9. Instalazioa ondo zaintzeko, taldeetako kideek topatzen dituzten akats edo hutsegite guztien berri emateko betebeharra dute, eta are larriagoa izango da kideek berek eragindako kalteen berri ez ematea.

10. Jokalekuan, aldageletan eta korridoreetan jarrerak egoia izan beharko du, beti langileen lana erraztuz. Langileekiko begirunea nahitaezkoa izango da uneoro, eta beren aginduak behar bezala bete beharko dira.

Jarrera eta begirunerik ezaren ondorioz taldeari eta bere kideei zigorrak ezartzera iritsi ahal izango litzateke.

11. Kirola, zeinahi dela ere espezialitatea, material eta jantzi egokiez egingo da, ez soilik uniformetasunari dagokionez baizik eta baita jokalekuaren egoera babesteari dagokionez ere.

Hori horrela, batik bat oinetakoak zaindu beharko dira, hau da, jokalekuetako lurzoru bereziak markatzen ez dituzten zolak erabili beharko dira. Arrazoi berarengatik, kalean erabilitako oinetako berak pabilioian ez erabiltzera bultzatzen da, batik bat neguko denboraldian.

Hortaz, eskatzen da soilik entrenamendu eta topaketetan erabiltzeko kirol oinetakoak edukitzea.

Talde teknikoko kideek (entrenatzaileak, ordezkariak eta langile laguntzaileak) atal honetan ezarritakoa bete beharko dute, bai entrenamenduetan, baita topaketetan ere.

30. artikulua.—Txapelketa ofizialeko partidak

1. Txapelketa ofizialeko partidetan, talde bisitariko kideak dohain sartu ahal izango dira instalazioetan, talde bisitariaren barne hartuz bai jokalaria, teknikaria, zuzendaritzakoak eta langile laguntzaileak, baita txapelketako arbitroak ere. Horretarako, beren izaera egiaztatu beharko dute, arduradunak idatziko du hori horretarako prestatutako kontrol-orrietan.

2. Talde bisitariaren parte edo arbitro-taldearen parte diren pertsonak behartuta egongo dira Orozkoko Udalaren gainerako arautegia betetzera, eta instalazioak eta bertako materialak behar den bezala zaintzea.

VI. KAPITULUA

KIROL IKASTARO, ESKOLA ETA KANPAINAK

31. artikulua.—Kirol ikastaroak eta kanpainak antolatzea

Orozkoko Udalak ikastaroak edota kanpainak antolatu ahal izango ditu baldin eta erabiltzaileek aski eskatzen badute ikastaro horien bideragarritasuna bermatzeko eta instalazioen azpiegituran antola badaitezke.

32. artikulua.—Kirol ikastaroak

Kirol ikastaroak iraupen mugatuko jarduerak izango dira, aurrez ezarritako programazioei eta finkatutako azken xedeei erantzuten dietenak.

Jokalekuak edo pistak ezin izango dira ikastaroetara bideratutako egun eta orduetarako erreserbatu.

33. artikulua.—Kirol kanpainak

Kirol kanpainak iraupena ikasleen garapenaren arabera programatuta izango duten jardunaldiak dira; edozein ikasle sartu ahal

7. Las competiciones oficiales que se desarrollen en las Instalaciones Deportivas Municipales por los equipos pertenecientes a Clubs de Orozko, están exentas de tasa de uso, exceptuándose los siguientes casos:

- En los casos que se precise montaje o trabajos preparativos extras.
- Sea con motivo de la no disponibilidad de cancha del equipo foráneo.

8. La concesión de usos para los entrenamientos quedará supeditada a los actos organizados o autorizados por el Ayuntamiento de Orozko, no habiendo lugar a reclamaciones cuando por dicha circunstancia haya de suspenderse o variarse el horario de los mismos anteriormente autorizado. No obstante, se comunicará dicho extremo al menos con diez días de antelación.

9. Para el buen cuidado de la instalación los integrantes de los equipos tienen la obligación de poner en conocimiento de los empleados todas las anomalías o desperfectos encontrados, siendo de mayor gravedad el no hacerlo con los producidos por ellos mismos.

10. El comportamiento en cancha, vestuarios y pasillos deberá ser correcto, favoreciendo en todo caso la labor de los empleados. El respeto a éstos será en todo momento obligado, atendiendo correctamente a sus instrucciones.

Las faltas de respeto y comportamiento podrían llegar a determinar sanciones al equipo y a sus componentes.

11. La práctica deportiva, sea la especialidad que sea, se realizará con el material y la vestimenta adecuada, no sólo en cuanto a uniformidad, sino en cuanto a proteger las condiciones de la cancha.

De esta forma habrá de cuidar sobre todo el calzado, utilizando suelas que no marquen los suelos especiales de las canchas. Por el mismo motivo se insta a no utilizar en el pabellón el mismo calzado empleado en la calle y, de manera especial, en temporada invernal.

Se ruega, por tanto, disponer de un calzado deportivo para uso exclusivo de entrenamientos y encuentros.

Los miembros del equipo técnico (entrenadores, delegados y personal auxiliar) deberán respetar lo dispuesto en el presente apartado tanto en los entrenamientos como en los encuentros.

Artículo 30.—Partidos de competición oficial

1. En los partidos de competición oficial, podrán acceder de forma gratuita a las instalaciones los componentes del equipo visitante, integrado por jugadores, técnico, directivos y personal auxiliar, así como los árbitros de la competición, previa acreditación de su personalidad que se reflejará por el encargado en las hojas de control adecuadas a tal efecto.

2. Las personas que tomen parte del equipo visitante o del equipo arbitral estarán obligados a cumplir con la restante normativa del Ayuntamiento de Orozko, cuidando con la debida diligencia las instalaciones y sus materiales.

CAPÍTULO VI

DE LOS CURSOS, ESCUELAS Y CAMPAÑAS DEPORTIVAS

Artículo 31.—Organización de cursos y campañas deportivas

El Ayuntamiento de Orozko podrá organizar los cursos y/o campañas de todas aquellas actividades deportivas que demanden los usuarios en cantidad suficiente como para garantizar su viabilidad y tengan cabida en la infraestructura de las instalaciones.

Artículo 32.—Los cursos deportivos

Los cursos deportivos serán actividades de duración limitada, respondiendo a programaciones preestablecidas y con objetivos finales fijados.

No podrán reservarse las canchas o pistas en la fecha y horas destinadas a los cursos.

Artículo 33.—Las campañas deportivas

Las campañas deportivas, serán actividades cuya duración estará programada en función de la evolución de los alumnos y donde

izango da jarduera horietan, edozein maila duela ere, eta lehen-tasunak ezarri ahal izango dira beren eskaeretan, denboraldi berean ikastaroan duten antzintasunari jarraiki.

34. artikulua.—Ikastaro eta kanpainetan izena ematea

Orozkoko Udalak antolatutako ikastaro eta kanpainetan izena eman ahal izango du ikastaro horietarako interesa duen edozein pertsonak, horretarako ezarritako kuota ordainduta. Izen-emateak udal kirol-instalazioetako harrera bulegoetan ezarritako epean egingo dira.

Oro har, interesdunak berak eman beharko du izena nahi duen ikastaroa, Orozkoko udal kirol-instalazioen harpidedun izan ala ez.

Ikastaroaren ordainketa hiru hilero edo hilero egingo da, ikastaroaren iraupenaren arabera, eta ikastaroa edo kanpaina egin baino astebete lehenago ordaindu beharko da. Kuota hori honako kasu hauetan soilik itzuli ahal izango da:

a) Kuotaren % 100 ikasleak ikastaro edo kanpaina hasi aurretik bost (5) egun baino gutxiagoko aurrerapenaz ikastaro edo kanpaina horretara joateko asmorik ez duela idatziz idazten badu.

35. artikulua.—Kirol jardueren programazioa

Bai kirol jardueren programazioa, baita horiek emateaz arduratzen diren pertsonak, Orozkoko Udalak onartu beharko ditu alde zuzenak.

Orozkoko Udalak ezarriko ditu, ikastaro edo jarduera bakoitzarako, ordaindu beharreko kuota, ikastaroa edo jarduera noiz egingo den, gehienezko eta gutxienezko parte-hartzaile kopurua, izena emateko lekua, etab.

Harpidedunek egindako erreserbek lehenetsia izango dute beti harpidetu gabeko egindako erreserbekiko.

36. artikulua.—Jarduerak edo ikastaroak etetea

Orozkoko Udalak jarduerak edo ikastaroak eten egin ahal izango ditu arrazoi objektiboak direla medio horien jarraikortasuna justifikatuta gelditzen ez bada; horrelakorik gertatzen bada, ikastaro edo aldi horri dagokionez ordaindutako kuotak itzuli egingo dira.

37. artikulua.—Kirol ikastaro edo eskoletan izena eman duten erabiltzaileen betebeharrak

Kirol ikastaro edo eskoletan izena eman dutenen betebeharrak dira honakoak:

1. Irakasleari jarduera praktikatzeko medikuaren egokimen-zurtagiria aurkeztea, ikastaroa emateaz arduratzen denak eskatzen badiu, eta kirol ikastaroan zehar kirola egiterakoan paira leza-keen edozein kalterengatik kalte-galerak eskatzeari uko egitea.

2. Ezarritako kuotak hilabete aurreratueta ordaintzea. Ez ordaintzeak eskubideak indargabetzea ekarriko du.

3. Ikastaroan ikastaroko monitorearen jarraibideei segituz parte hartzea.

38. artikulua.—Ikastaroetan izena eman duten erabiltzaileen eskubideak

Ikastaroetan izena eman dutenen eskubideak dira:

1. Ikastaroa ematen deneko kirol-instalazioak erabiltzea.

2. Ikastaroa emateko egunak eta ordutegiak aldatuak ez izatekoa, non eta ez den beharrezkoa; aldaketak ikastaroaren iraupenaren % 50 baino gehiagori eragiten badiu, ordaindu dutena atzera eskuratzeko eskubidea dute izena eman dutenek.

3. Orozkoko Udalak beharrezko kirol materiala jar dakien, norbere arropa izan ezik.

4. Ikastaroaren jarraitasuna justifikatzen ez denean, emandako epeagatik ordaindutako kuotaren zati proportzionala atzera eskuratzeko eskubidea, lehenik erabiltzaileei horren berri emanda.

5. Ikastaro osoa horretarako gaituta dagoen kirol monitore batek eman dakien.

cualquier alumno podrá integrarse sea cual fuere su nivel, pudiéndose establecer preferencias en la atención de solicitudes de acuerdo a su antigüedad en el curso durante una misma temporada.

Artículo 34.—Inscripción en los cursos y campañas

Podrá inscribirse en los cursos y campañas organizadas por el Ayuntamiento de Orozko cualquier persona interesada en participar en los mismos, previo pago de la cuota establecida al efecto. Las inscripciones se realizarán en el plazo establecido en las oficinas de recepción de las instalaciones deportivas municipales.

Con carácter general, deberá inscribirse en el curso deseado el propio interesado, sea abonado o no abonado a las Instalaciones Deportivas Municipales de Orozko.

El abono del curso será trimestral o mensual según la duración de éste y deberá ser efectivo con una semana de antelación a la celebración del curso o campaña. Esta cuota únicamente podrá ser reintegrada en los siguientes supuestos:

a) El 100% de la cuota en el supuesto de que el alumno notifique por escrito su intención de no acudir a las clases con menos de cinco (5) días de antelación al inicio del curso o campaña.

Artículo 35.—Programación de actividades deportivas

Tanto la programación de actividades deportivas como las personas encargadas de impartir cada una de ellas, habrán de ser aceptadas y aprobadas previamente por el Ayuntamiento de Orozko.

El Ayuntamiento de Orozko establecerá para cada curso o actividad la cuota a abonar, el periodo de celebración, el número máximo y mínimo de participantes, los lugares de inscripción, etc.

En todo caso tendrán preferencias las reservas efectuadas por abonados sobre las efectuadas por los demás usuarios no abonados.

Artículo 36.—Suspensión de actividades o cursos

El Ayuntamiento de Orozko podrá suspender actividades o cursos cuando por razones objetivas su continuidad no quede justificada, en cuyo caso serán reintegradas las cuotas abonadas correspondientes a dicho curso o periodo.

Artículo 37.—Obligaciones de los usuarios inscritos en cursos o escuelas deportivas

Son obligaciones de los inscritos en los cursos o escuelas deportivas:

1. Presentar al profesor un certificado médico de actitud para la práctica de la actividad, siempre que así lo solicite el responsable de la impartición del curso, renunciando a reclamar daños y perjuicios por cualquier daño que pudiera sufrir en la práctica del deporte durante el curso deportivo.

2. Abonar las cuotas establecidas por meses anticipados. El impago dará lugar al decaimiento de los derechos.

3. Participar en el curso siguiendo las indicaciones del monitor del curso.

Artículo 38.—Derechos de los usuarios inscritos en cursos

Son derechos de los inscritos en los cursos:

1. Utilizar las instalaciones deportivas donde se desarrolla el curso.

2. A que no se cambien los horarios y días de impartición del curso, salvo por causa de necesidad y con derecho a obtener la devolución de lo abonado en caso de que el cambio afecte a más del 50% del tiempo de duración del curso.

3. A que se facilite por el Ayuntamiento de Orozko el material deportivo preciso, excepto la ropa personal.

4. A que se devuelva la parte proporcional de la cuota abonada por el periodo impartido, cuando no se justifique la continuidad del curso, previo aviso a los usuarios.

5. A que todo curso esté impartido por un monitor deportivo capacitado a tal efecto.

IV. TITULUA ERRESERBEN ARAUDIA

39. artikulua.—*Kirol-instalazioak alokatzea*

Kirol-instalazioak alokatzeko zerbitzua erabiltzaileen esku dago. Hortik erreserba-mota guztiak zentralizatzen dira, eta Orozkoko Udalak onetsitako prezioak kobratzen dira, osagarriei dagozkienak barne, hala nola, argia, aldagelak, etab., baldin eta erabiltzaileek eskatzen badute.

Prezioen zenbatekoa jokalekua/orduko gisa zenbatuko da; praktikaturiko den espezialitateak zehaztuko du prezioa.

40. artikulua.—*Erreserben mugak*

Orozkoko Udalak, dagoen eskaria kontuan hartuta, erabiltzaile eta aste bakoitzeko erreserba litekeen gehieneko ordu-kopurua mugatu ahal izango du.

41. artikulua.—*Orozkoko Udalak egindako erreserbak*

Orozkoko Udalak, aurrerapen nahikoaz, Udalak berak erreserbatutako egunen berri emango du, eta egun horietan ezin izango dira erreserbak egin.

42. artikulua.—*Erreserba aldatzea edo ezeztatzea*

Jokalekuak, kirol pistak edo erabili beharreko materiala egoera txarrean daudenean eta ondorioz edozein kirol egitea ezinezkoa edo arriskutsua denean, erabiltzaileak aukeratutako erreserba-ordua aldatu ahal izango da, erabiltzailea ados baldin badago. Bestela, erabiltzaileak egindako erreserba galduko du, eta ordaindutako prezioa atzera eskuratzeko eskubidea izango du.

43. artikulua.—*Erreserbak egiteko lekua eta baldintzak*

Instalazioak udal kirol-instalazioetako administrazio-bulegoetan egin beharko ditu interesdunak, erreserba horiei dagozkien kuotak ordainduta.

Erabiltzaile bakoitzak —harpideduna nahiz harpidetu gabea izan— gehienez ere kirol pista edo jokaleku bat astean ordu betez erreserbatu ahal izango du, non eta zerbitzuak ez duen erabilera handiagoa egiteko aukera ematen.

44. artikulua.—*Finkatutako kuoten ordainketa*

Finkatutako kuotak erabilpen kontzeptuan ordainduko dira, erreserba egiten den unean bertan; hala ere, Orozkoko Udalak erreserbak ordaintzeko beste sistema berezi bat ezar dezake instalazio jakin batzuetarako.

Erreserbatutako instalazioa ez erabiltzeak ez du salbuesten instalazio horretarako ezarritako tasa ordaintzetik, aldez aurretik 24 orduko aurrerapenagaz jakinerazi ez bada.

45. artikulua.—*Kirol-instalazioa erabiltzen jarraitzeko aukera*

Erabiltzaileei kirol pista edo jokalekua erabiltzeko ordua amaitzen zaionean, kirola egiten jarraitu nahi badu oraindik ere, jokaleku hori edo beste bat libre baldin bada erabiltzeko aukera izango du, ezarritako prezioa ordaindu ondoren.

46. artikulua.—*Kirol klub, elkarte eta federazioentzako erreserbak*

Salbuespen gisa, kirol klub, elkarte eta federazioentzako instalazio-erreserbak beharrezkoa den aurrerapenaz egingo dira, zerbitzuen araudi honen 28 artikuluan jasotzen den araudiaren arabera.

Erreserba egun eta orduak gainerako talde eta banakako erabiltzaileen beharren arabera ezarriko dira.

Erreserba talde-kirol baterako denean, jardueran parte hartzen duten guztiek parte-hartzaileen gehiengoa harpidedun edo harpidetu gabea izatearen arabera ezarritako prezioa ordaindu beharko dute.

TÍTULO IV DE LA NORMATIVA DE RESERVAS

Artículo 39.—*Alquiler de instalaciones deportivas*

A disposición de los usuarios está el servicio de alquiler de instalaciones deportivas. Desde aquí se centraliza todo tipo de reservas y se cobrarán los precios aprobados por el Ayuntamiento de Orozko, incluidas las relativas a servicios accesorios como luz, vestuarios, etc. si los usuarios lo solicitaran.

El importe de los precios se referirá a hora/terreno de juego, siendo éste el marcado por la especialidad a practicar

Artículo 40.—*Limitación de reservas*

El Ayuntamiento de Orozko podrá limitar el máximo de horas a reservar por cada semana y usuario por razón de la demanda existente.

Artículo 41.—*Reservas efectuadas por el Ayuntamiento de Orozko*

El Ayuntamiento de Orozko, con antelación suficiente, comunicará los días reservados por el propio Ayuntamiento, en los cuales no se podrán conceder reservas.

Artículo 42.—*Modificación o anulación de la reserva*

Quando se encontrasen en mal estado las canchas, pistas deportivas o el material a utilizar, que haría impracticable o peligrosa la práctica de cualquier deporte, se podrá cambiar la hora de reserva elegida por el usuario siempre que manifieste éste su conformidad. En caso contrario, éste perderá la reserva realizada, con derecho a obtener la devolución del precio abonado.

Artículo 43.—*Lugar y condiciones para efectuar las reservas*

La reserva de instalaciones deberá realizarse por el interesado en las oficinas administrativas de las Instalaciones Deportivas Municipales, abonando las cuotas de dichas reservas.

Cada usuario —abonado o no abonado— podrá reservar como máximo una cancha o pista deportiva por una hora semanal, salvo que el servicio permitiese una mayor utilización.

Artículo 44.—*Abono de las cuotas fijadas*

Las cuotas fijadas se abonarán en concepto de utilización y se harán efectivas en el momento de realizar la reserva, sin perjuicio de que el Ayuntamiento de Orozko pueda establecer otro sistema especial de abono de reservas para determinadas instalaciones.

La no utilización de la instalación reservada no exime del pago de la tasa establecida para dicha instalación, salvo que exista un aviso previo de 24 horas.

Artículo 45.—*Posibilidad de continuar utilizando de la Instalación Deportiva*

Quando a un usuario se le acabe la hora de utilización de la cancha o pista deportiva, y deseando continuar con la práctica del deporte, se encuentre libre de reserva dicha cancha u otra, podrá utilizar la misma, previo pago del precio establecido.

Artículo 46.—*Reservas para clubes, asociaciones y federaciones deportivas*

Excepcionalmente, las reservas de las instalaciones deportivas para clubes, asociaciones y federaciones deportivas se realizarán con la antelación necesaria en base a la normativa que se recoge en el artículo 28 del presente reglamento de servicios.

Los días y horas de reservas se establecerán en función de las necesidades de los demás grupos y usuarios individuales.

Quando la reserva sea para un deporte de equipo, todos los que intervengan en la actividad, deberán depositar la cantidad establecida según sean abonados o no abonados la mayoría de los participantes.

47. artikulua.—Norbere harpidedun-txartela erabiltzeko bete-beharra

Ezin izango dira erreserbak beste baten harpidedun-txartelaz egin.

48. artikulua.—Erreserben sailkapena

Kirol-instalazioak erabiltzeko honako erreserba-mota hauek ezartzen dira mailaren arabera:

a) Harpidedunentzat:

1. Edozein kirol-instalazio edo jokaleku erreserbatu ahal izango dute erreserbarako aurreikusitako eguna baino zazpi egun eta ordu erdi lehenago, gehienez ere. Nolanahi ere, jokalekua edo pista libre baldin badago, jarduerari ekin aurreko orduan ere egin ahal izango da erreserba.

2. Eskatzen duten bakoitzean pertsona bakoitzeko erreserba bat egingo da, eta berriz ere ilararen hasiera itzuli beharko da, ilararik badago.

3. Erreserba baimendutako pertsonaren bitartez egin ahal izango da, baimen hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuz harpidedun-txartelarekin eta bere NANekin etab.ekin batera (edo horren fotokopia).

Baimenaren egiaztagirian erreserbatu nahi den eguna, ordua, instalazioa eta ordaindu beharreko prezioa jasoko dira; soilik eguna eta ordua aldatu ahal izango dira, nahi den ordua dagoneko erreserbatuta baldin badago.

Nolanahi ere, harpidedun diren erabiltzaileek egindako erreserbek izango dute lehentasuna.

b) Harpidedun ez direnentzat:

1. Nahi duten instalazioa erreserbatu ahal izango dute gehienez ere egun bateko aurrerapenaz; instalazioa libre baldin badago, dena den, kirolari ekin baino ordubete lehenago erreserbatu ahal izango dute.

2. Klub, elkarte eta federazioentzat egindako erreserba, denboraldiaren hasieran zehaztutako aldietatik aparte, zazpi eguneko aurrerapenaz egin ahal izango da.

Erreserba horiek egingo den jarduera zehaztuko dute, lege-baldintza hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuz.

c) Itundutako taldeentzat:

1. Modalitate honentzako eskabideak urriaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30 arteko aldirako bideratuko dira.

2. Erreserba-modalitate honen araudi-garapena urtero zehaztuko da, araudi honen osagarri den berariazko dokumentu batean.

V. TITULUA**KIROLDEGIAREN KUDEAKETAZ ARDURATZEN DIREN LANGILEAK****49. artikulua.—Lege-betebeharrak**

Instalazioetako mantentze-lanen arduradun diren langileek Laneko Segurtasun eta Higienea arloan ezarritako lege-betebehar guztiak bete beharko dituzte.

50. artikulua.—Orozkoko Udalaren erantzukizuna

Orozkoko Udalak kirol-instalazioak erabiltzeko egoera ezin hobean mantentzearen ardura izango du, eta, halaber, berdegune, lorategi, dutxa, aldagela eta komunak garbiketaren arduradun. Hori, dena den, ez da eragozpen izango Udalak arlo honetan izenpetutako kontratuetan kontratistak bere gain hartutako betebeharrarako.

51. artikulua.—Langileen identifikazioa

Udal kirol-instalaziotan beren zerbitzua ematen duten langileak, norberarena izan nahiz zerbitzuen esleipendun diren edozein enpresa-takoak, beti behar bezala identifikatuta egongo dira, arropa egokia jantzita, eta txartel bat jarrita eramango dute beren izena eta abizena adieraziz.

Artículo 47.—Obligatoriedad de uso del carné de abonado propio

No se permitirá la reserva de instalaciones deportivas con el carné de otro abonado.

Artículo 48.—Clasificación de las reservas

Se establecen las siguientes clases de reservas para el uso de las Instalaciones Deportivas según categorías:

a) Para abonados:

1. Podrán reservar cualesquiera instalaciones o canchas deportivas con siete días y media hora de antelación a la fecha prevista para reserva, como máximo. En cualquier caso, podrá realizarse la reserva, cuando esté libre en la hora anterior al inicio de la actividad.

2. Se realizará una reserva por persona cada vez que lo soliciten, debiendo en cualquier caso volver al inicio de la cola si la hubiere.

3. La reserva podrá realizarse mediante persona autorizada con la presentación del documento acreditativo de tal autorización junto al carné de abonado y su DNI, pasaporte, etc. (o su fotocopia).

